


# anaitasuna

1977.EKO APIRILAREN 1EKOA 337. ZENBAKIA 35 PTA.



**beste guztiak ere**



**geuk etxeratuko**

# EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) \_\_\_\_\_ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

**Ordaintzeko era**

Giro n.º \_\_\_\_\_ Cuenta corriente n.º \_\_\_\_\_

Bankoa \_\_\_\_\_

Deitura \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Hiria \_\_\_\_\_ Probintzia \_\_\_\_\_

**egin**

**HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.**



## ABERRI EGUNA, AMNISTI EGUNA

Aberri Eguna prestatzen dihardu Euskal Herriak, urteroko bere eguna baita. Alderdi politiko guztiek egin zioten dei bateratua Herriari hospakizun honetara Gasteizen biltzeko.

Aberri Eguna euskaldun guztion eguna da, Euskal Herrian bizi garenona eta atzerrian bizi direnena. Are gehiago, azken urteotan egun hau Euskal Herrian hospatzerik izan ez dutenena da bereziki.

Euskal gudari asko dago oraindik Euskal Herritik kanpo. Zenbait, frankist diktadura ezarri zenetik beren Herria zapaldu ez duena urte haietako gudariak. Euskal Herriaren alde burukatu zutelako daude atzerrian. 1977.eko Euskal Herriaren egun hau gurekin hospatu behar dute Gasteizen.

Beste zenbait, gazteak bereziki, lehengo gudarien zuzia eskuratuz diktaduraren aurka burukatu da azken urteotan. Hauetarik zenbaitek atzerrira ihes egin behar izan du eta beste hainbeste espetxean dago.

Euskal Herriaren aldeko burrukan aitzindari izan direnok. 1977.eko Aberri Egunean guztion aitzinean behar ditugu. Diktadura benetan eraitsi bada, demokrazia garaitu bada, euskal gudari guztiak (lehengoak eta oraingoak) Gasteizen behar ditugu.

Aberri Egunerako kaleratuak izango omen genituen preso guztiak. Herriaren burruka isiltzeko gozoki bat izan zitekeen. Oraingoan serioski amnistia izango zela uste zuenik ere ba zen.

Baina Aberri Eguna gainean dugu eta tantakontagailuz ari zaizkigu ateratzen. Hau ez da amnistia, bestetan bezalako indultu antzeko bat baizik. Eta Euskal Herriak ez du indulturik eskatu. AMNISTIA OSOA eskatu du, eta exijitzen segituko du.

Aberri Eguna 1977: Euskal Herriaren eguna, euskal gudarien eguna, Amnistia osoaren eguna,



## KATEAK BILBOKO UDALETXEAN

“Kontzientzi eragozpena eskubide bat da”. Hau dugu harmarik hartu nahi ez dutenen slogana. Joan zen 7an hauetariko sei gaztek Bilboko Udaletxearen aurrean kateaz elkar lotu zuten, katea gero barandilan lotuaz eta giltzak urrun botata. Egurdiko ordu bat t'erditatik ordubi t'erdietara egon ziren horrela, polizia hurbil zutela. Gazte hauekin hitz egiten aritu ginen eta beren joreraren arrazoia adierazi ziguten:

—Dakizuenetz, orain dela hila-bete bat Gobernuak dekretu bat agertu zuen eragozpenari buruz. Hitz laburrez, horrela zioen dekretuak: erlijio arrazoiengatik harmarik hartu nahi ez dutenek hiru urtetan, armada barruan, zerbitzu “zibilak” egin beharko dituzte, beren militar eskualdetik kanpo. Hau ez da, noski, kontzientzi eragozpena onhartzea. Hau, harmak ez hartzeagatik, “soldadutza” barruan gure buruak zigortzea da.

Hitz egiten ari garen artean Poliziaren auto bat etorri da eta begira jarri zaigu, ezer ez egin gabe. Gazteek aurrean eta atzean, lepotik zinzitzilik daramatzaten kartelak irakurtzen hasiak ditugu: “Kontzientzi eragozpena eskubide bat da” “Zerbitzu zibila nahi dugu”, “Zerbitzu zibil ez militarizaturik eta benetako herri interesa exijitzen dugu”, diote euskaraz idatzitako karteletan. Erdarazkoetan “Desde el 1 de Marzo somos ilegales al no aceptar el Decreto de Gobierno”, “Qué piensan hacer con nosotros?” eta era honetako hitzez osaturik daude. Ordubiak hamar gutxiago dira bonberoak heltzen diren unean. Kateak mozteko tresnak dakartzate baina, beren lana gazteen kateak moztea ez denez gero, tresnak poliziari utzi eta bonberoek alde egiten dute. Ordubi t'erdietan polizia batek tresna hartu eta kateak moztu egiten ditu. Gero, furgoi batetan, sei gazteak komisaldegira daramatzate. Argi dago hemen kontzientzi eragozpena eskubide bat ez dela...

## FILME ALDERDIKOIA

Martxoaren hasieran Goiherin filme klandestino bat banagertua izan da, euskal burrukari buruz egina. Beronen nolakotasun artistikoa alde batera utzirik, benetan salatu beharra dago egileen jokabide alderdikoi eta eksklusibista. Amnistiaren arazoa, kasu, ez da talde edo alderdi bakar bati doakiona, Euskal Herri osoaren kontua baizik. ETaren izena eta izana, eta heredentzia, bestalde, ez da talde berezi baten zerbait, militarrek izeneko norbaitzu ere, beste batzuren artean, hortxe baitaude. Gaur hitzik ez duten hilen gorpuekin arropatu nahiz izatea, azkenik, ez da oso argudio zuhur ez dotorea, demagogia egiteko maiz erabilia izan arren.

## ALDIZKARI BERRITU BAT

“LEAIBAR” Lea ibarreko aldizkari bat da, hots, Amoroto, Mendexa, Murelaga, Muntibar eta Gizaburuaga herrietako euskaldunek egina. Euskara hutsean idatzita dago eta bere Otsaileko zenbakia bai itxuraz eta bai gaiez oso atsegina eta interesgarria aurkitu dugu. Bertan erabilitako euskara argia, erraza eta ulerkorra dugu, nahiz eta ortografi aldetik akats batzu egin. Baina hau guttienezkoa da. “LEAIBAR” aldizkariak sail hauek ditu: “Ataurre gisa”, “Euskal kultur mintegia”, “Herriak”, “Gaztetxo”, “Euskal mitoak”, “Hortik eta hemendik”, “Eliza gaur”, “Ezagutu Euskal Herria”, eta “Herriari begira”. Aldizkari hau hartu nahi baldin baduzue, Murelagako parrokia idatz ezazue, zeuen izendeiturak eta helbidea emanaz. Gure aldetik gure ongi etorria opa diogu “LEAIBAR” aldizkari berrituari.

## NOREN DELA?

EGINek ba du bere konkurrentkidea: DEIA, dirudienetz, PNVek Gure Lurrarentzat aterako duen egunkaria. Gure Herriarentzat ere mesedegarria gerta dadila.

## BARTZELONAKO EUSKALDUNAK ERNE

Gazte-gaztetandikan Herri-tik kanpora... eta Unibertsitate-rik ezaz, Bartzelonara joan. Baina han ere bihotzak zerbait dio eta, horregatik, Ramon Llull estudiantetxeko euskal ikasleek, Martxoaren 4, 5 eta 6an, bereziki deituta, Txillardegia eta X. Kintana izan dituzte hizlari. Gaiak: Elebitasuna eta Euskal Unibertsitatea.

## ABERRI EGUNA, PNV-REN JAIA OTE?

PNVek aurtengo Aberri Eguna Gasteizen ospatzeko dela egin digu, Euskal Herriko beste alderdi eta taldeak bertara joateko gonbidatuz. Demokrata izenaz horrenbeste harrotzen direnek, ordea, ez dirudi demokraziabide eta prozedurak oraindik ikasi dituztenik. Izan ere, PNVek euskaldunon egun nazionala beraren jai partikularra dela uste al du oraino? Hola baldin bada, mesedez, esan dezala lehenbailehen, eta kasu horretan bai, dei dagie la jeltkideei, baina ez besteoi, guk Herriaren Eguna nahiago dugun tokian ospatzeko eskubidea dugu eta. Bestela, guztiona bada, eta holaxe nahi genuke, alderdi guztien artean erabaki beharko da non eta nola egin, eta ez, faxista legez, hatzamarrez.

## ESB: PARTIDO SOCIALISTA VASCO!?

ESB, hasieran biltzarre eta biltzaile izateko asmotan jaiotzen alderdiak bere paperak Martxoaren 4-5-6an —Euskal Herrian berriro egin zezakeen baina— presentatu ditu, haietan bere euskal izenaren itzulpenzat Partido Socialista Vasco jarritz. Biltzarrea noiztik nora den euskaraz “partido” azalduko digukete, noski, ESB-ekoek. Horri piratakeria esaten zaio eta, jakina, espainol lekekeriaz baliatzen jakitea. Eginetan ezagun.



## MEDIKUNTZ IKASLEEN HERSTALDIA

Martxoaren 25ean hasirik, Medikuntz Fakultateko lehen ikasturteko ikasleek herstaldi edo entzierro bat antolatu dute. Martxoaren 28an hertsirik diraute. Baina zeintzu arrazoi dituzte horretarako? Utz diezaiegun hitza eta berek azalduko digute arazoa. Horretaz, onena berek prestatuak agiria dateke egokiena, eta horregatik hurrengo lerroetan agertzen dizuegu.

### MINISTERITZARI ETA HERRIARI

Lau konbokatorien eta hiru asignatura-giltzen neurriak jartzen dituzten egoera ikusiz, hau adierazi nahi dugu:

Bigarren kurtsura pasatzen uzten ez gaituzten hiru asignatura ditugu: Biokimika, Biologia, eta Anatomia. Hauetako bat bakarra zintzilik edukiz gero, kurtsu oso bat gal dezakegu. Bestalde, lau konbokatoria bakarrik ditugunez, gure egoera oso larria da.

Neurri hau irakaskuntza hobetzeko direla, askotan esaten digute. Baina ez da gure hezkuntzari oztopoak jartzea baizik. Hartzen dugun irakaskuntza guztiz desegokia dela ere adierazi nahi dugu. Eta, batez ere, horrelako neurriak jarri ahal izateko.

Medikuntzako fakultatean gaur egun dagoen masifikazioa, irakasle bakoitzak bete behar dituen ordu guztiak emango balitu, konpondu egingen litzateke.

Ez dago (ez Bizkaian, ez eta ere Espainian)

sendagile gehiegirik. Batzuk leku askotan lan egitean, beheri lantokiak kentzen dizkiote. Gainera, hauzoz eta herrietan duten sanital laguntza guztiz desegokia da.

Gaur egun SSeko sendagile bakoitzak mila familia ditu. Orduan berrogei eta hamahiru pertsona, gutti gora-behera, dituztela ikus dezakegu. Egokiena sei bat izatea litzateke. Sendagile gehiago behar dela ikusten dugu.

PNNek daramaten grebaz konforme gaude gu, irakaskuntzaren hobetzearen alde baitaude, baina honek gure egoera gehiago larritzen du, PNNek greban jarraitzen dutenez, eta guk ez baitugu klaserik.

Tribunale baten eskutan gelditzen gara eta kurtsu bat gal dezakegu.

MECen inkompetentzia azaldu nahi dugu, Medikuntzako irakaskuntzaren larritasuna onhartzen baitu. Eta fraude baten biktima garela, bederatzita mila pezeta ordaindu eta gero klaserik ez baitugu.

Beraz, zera exigitzen dugu:

- 1- 3 asignatura-giltzen bapateko desegitea.
- 2- 4 konbokatorien dekretuaren ezabapena.
- 3- Unibertsitateko irakaskuntzaren arrazionalpena.
- 4- Geure eritziak entzun honen berrestrukturatzea.
- 5- MEC, PNNen grebari soluziobide egokiena eman diezaiola.
- 6- MEC-en berrestrukturatzea.

**EZ DA SENDAGILERIK SOBERA!!!  
OSPITALEAK FALTA DIRA!!!**

Bilboko Medikuntz Ikasleak

# anaitasuna

Bizkaia  
hamabosterokoa  
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

### Urteko abonamendua:

Bertorako	700	pezeta
Latin Amerikarako	800	pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	900	pezeta

**Ale bakoitza:** 35 pezeta

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

### ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

Izen-deiturak .....

Bizilekua .....

Herria .....

Probintzia ..... Tel .....

## SARRERA

Euskal herriak pairatzen duen zapalkuntzaren barruan, alor nabarietariko bat herri kulturarena da.

Kultur zapalkuntza honen agerpen bat, jasaten dugun sakabanaketa eta dependentzia egoera da.

Irauteko, herri baten kulturak maila guztietan aurreratu behar du. Horretarako, beharrezkoa da jakintzaren sail guztietako aurrerapen jeneralak herriaren izaerari eta problematikari egokitzea. Herri unibertsitate euskalduna da xede hau lortzeko dugun bide bakarra. Bertan, estudianteak Euskal Herriari atxikiz eta beraren alde hezituko dira.

Egungo egoera guztiz kontrakoa da. Nahiz hartzen duten irakaskuntza Euskal Herriaren behar popularrak betetzen ez dituelako, nahiz herritik kanpo irten behar dutelako, estudianteek, beren hezkunde bilakaeran herriarekiko atxikimendua galdu egiten dute.

Unibertsital barruti desberdinetan sakabanaturik egonez gero, ezin ukanen dugu herri unibertsitate euskalduna lortzea. Barruti bakarra behar beharrezkoa dugu.

### BARRUTI BAKARRAREN BEHARRA.

1.— Egungo egoera:

a) Fakultate falta eta unibertsital barruti desberdinetan sakabanaketa.

b) Daudenatarik asko esku pribatuen menpekoak dira (Compañía de Jesús, Opus Dei), honek dakarren selektibitate ekonomikoarekin.

Egoera honen ondorioak:

1— Euskal estudiante asko espainiar estatuko

beste unibertsitaterantz joan beharra.

2— Euskal errealitateaz desjabetzea eta jabetzeko eragozpenak.

3— Euskal herriari egokitutako ikerketa kultural eta zientifikorik eza.

4— Ekintza profesionalak benetako herri kultura euskaldunaren izateari egokitzeko eragozpenak.

2.— Guzti honen aurrean, barruti bakar bat ezartzeko premia ikusten da.

Barruti bakar honek ezaugarri hauk ukan behar harko lituzke, guttienez:

a) Autonomia: ezen espainiar estatuaren barruan, kultura erakunde maximoa ez duen herri bakarra, Euskal Herria da, eta, garbi da izaera aski duela beraren abiada akademikoa era autonomo eta dezentralizatu batez eraikitzeko.

b) Ikasplanen berezkuntza: Plan jeneral bati jarraituz, Euskal Herriaren problematikari egokitu zaizkion gaiak sartuko dira ikasplanetan.

c) Irakaslegoa administraritzaz zentraletik at ituntzeko ahalmena.

d) Beharrezko diren fakultate guztien sorketa, Hego Euskal Herriko lau probintzien (Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia) benetako premiei begira.

e) Barrutiaren batzorde zuzentzaile Hego Euskal Herriko lau probintziek parte bera ukanen dute.

f) Euskara unibertsitateko maila guztietan ofiziala eta erabilia izanen da. Ikasgai guztiak euskaraz eta erdaraz irakatsiko dira.

Espainiako gobernua, dekretu-lege baten bidez, egitarau oso hau lortzeko bidea eman behar du.

Unibertsitateko Euskal Kultur Taldeek

### Lekeitioko Ikastolak Udaletxeari

*Herriaren egoera ikusirik eta gure kooperatibaren arauetan oso-osoan konkretatzen dela pentsaturik, uste dugu euskarari eta euskal kulturari benetazko indar bat emateko ordua dela herri mailan.*

*Euskararen ofizialkidetasuna puntu konkretuetan zehaztu behar da, benetan nahi badugu euskara plazaratzea. Gainera argi dago —inon egotekotan—, Lekeitioko herria euskaraz mintzatzen dela eta euskara dela herriaren benetako hizkuntza.*

*Puntu hauk gogoan hartuta udaletxera jotzen dugu,*

### ESKATUZ:

*1- Herriko kaleen izenen euskaratzea eta kasu batzutan jatorrizko izenen berripintzea.*

*2- Kale berriak zabaltzen direnean, herriarekin edo Euskalerriarekin zer ikusia duten izenak aukeratuak izan daitezela.*

*3- Herriari egiten zaizkion anuntzio guztiak, euskaraz joan daitezela.*

*4- Udaletxeko bulegogizonentzat, euskarazko eskolak ipin ditzazuela, hirugarren puntua bete dezaten.*

*5- Alfabetatzen eta Euskalduntzen eskolek udaletxearen diru laguntza izan dezatela.*

*Beste gabe eta helburu hauk eta gehiago ere lortuko ditigulakoan agurtzen zaituegu.*



# danona

KOOPFRATIBA

- \* haltzarigintzan  
nugusi
- \* aukera  
guztietako
- \* logelak
- \* egongelak
- \* modulu gisa  
tajaturiko  
haltzariak

*Azpeitia*  
*Gipuzkoa*  
*tel. 812840*

**Argia ezinbestekoa den tokian,**

**SFT URA bat ezar. Berezko argia du.**



URA B-30



URA LR-206



URA GENELUX-3000

Jantoki, iraganbide, ikasgela, botikin, zaingela, eskailera,  
logela eta antzekoetan,

**SAFT-URA emergentzi argigailuek beren segurtasuna eskaintzen dizute. .**

**SAFT-URA-k pilagun argigailutan aukerarik ugariena  
dauka: aldizkakoak, semaforoak etab...**

# SAFT

**IBERICA, S. A.** Artapadura, 11 - Tfnoa. 26 17 00 - Gasteiz



# LABen ALTERNATIBA

L.A.B., Euskadiko Langileriaren alde jokatzeko sortu den erakundea dugu. Langileria honek bi erakunde zapalkuntza jasaten duela garbi ikusten duena. Eta, beraz, nazional eta sozial zapalkuntza hauen aurka lan egiteko prest dagoen masa erakunde bezala aurkezten da. Erakunde hau zabala, baterakoa, demokratikoa, nazionala eta langileriaren aldekoa dugu.

Bitartean Langileriaren Mugimenduaren barnean, L.A.B. korrante bat denez gero, beronek beste indar batzu antolaturik daudela kontuan hartzen du. Indar hauek beste era batez ulertzen dute Langileriaren Mugimenduko organizazioa eta beronen helburuak eta eginkizunak. Eta batasuna premiazkoa dela onhurturik alternatiba baterakoi bat opa egiten diete Euskadiko Langile Mugimenduan lan egiten duten indar guztiei eta batez ere langile guztiei (kideak edo ez).

Alde guztietatik egiten diren ahaleginak batzea, da gure gogoia. Gure lana hau da: Langileriak Patronalaren kontra eta bere boterearen politik agerpena, hau da faxismoaren kontra eta organizazio baterakoiaren erak, finkatzea.

Gure alternatiba ez datza sasi protagonismoetan. Ideologik ezberdintasunak bazter batetan utziz Euskadiko langileen batasunarako puntu beharrezkoenak gureganatzen ditugu eta ikuspegi ezberdinak benetan baterakoi eta demokratik diren Asanbladeen menpean jartzen ditugu. Eta protagonismoa langileei bakarrik dagokienez gero, horretarako oinharriak finkatzen ditugu.

Hona hemen gure alternatiba:

## 1.— KLASE SINDIKATOA.

Sindikato honek klase burrukatik sortu behar du eta orduan bere ekintza klasearekiko zapalkuntza nabariago dagoen lekuan hasi behar da, lantokian, tailarrean.

Europar Sindikalismoak goi mailatik Patronalarekin negoziatzeko ahaleginak egiten dituen bitartean, gure Sindikalismoak bere punturik gogorrena lantokietan ukanen du. Eta honekin hau lortu dugu:

- Sindikatu betiko burokratizazioari oztopoak ipini (zeren eta burokratizazio horregatik global gaien alde bakarrik mugitzen dira Sindikatu kideak edo afiliatuak.
- Lantegi bakoitzean kuantitate eta kualitate mailan egiten diren eskakizunak lagundu (explotazioaren teknologia salhatu, planifikazioan langileen aldetik kontrola egon dedila, eta abar). Eta horrela, Neokapitalismoak Entrepresa autokratik egiturak ezin denez gero, sozialist eta demokratik planifikazioa hasi egingo dugu.

Euskadiko langileen benetako kontzientzia eta burruka mailaz neurtutako eskakizunak egitarauztat hartu beharko du.

Eskakizun hau lanezkoak bakarrik ez dira izan, klaserik eta nazional zapalkuntzarik gabeko gizartera abiatu beharko baitira.

## 2.— EUSKAL SINDIKATOA.

Euskadin beren lan indarra saltzen duten langileengandik sortu behar du Sindikato honek, marko honetan Euskadiko langileek beren klase burruka egiten dutelako.

Honetaz Sindikato honek Euskadiko Nazional boterea onhartu behar du, zerengatik eta honekin batera eskubide, behar eta botere batzuk alkatutik, libreaki bere nazional etorkizuna erabakitzeko eta Estatu bat egiteko ahalmena izanen bailuke. Eta nahiz eta une honetan bere eginkizuna Hegoaldera mugatu, Iparraldekoekiko harremanetan jartzea helburutzat du Sindikato honek.

Bere egitarauan nazional eskarien artean honek lazoak egon behar dute: Euskalduntzearen alde burruka bat, baita ere Euskal Herri Unibertsitatearen alde ere, iraultzaile eta langile iraultzaile militanten aldekoen mobilizazioak.

Burruka honetan, beste herritar taldeekin diharduko du, hau da, oraingo gizartea aldatu nahi duten herritar taldeekin, berauek batez ere klaserik gabeko gizarte batetara heltzea baldin ba dute helburutzat.

## 3.— DEMOKRATIK SINDIKATOA.

Tailer, Entrepresa eta abarreko Asanbladeetan langileengandik sortutako gogoia gauza guztien gainetik izango da Sindikato honen eginkizuna. Gehienengandik sortutako gogoia gauzarik errespetagarriena izango da. Oinharriak bere delegatu edo ordezkariak aukeratuko ditu eta baita ere edozein unean alda ditzake.

## 4.— SINDIKATO INDEPENDIENTEA.

Sindikato honek, langileriak horrela nahi baitu, Estatu, Alderdi eta Politik interindar Erakundeengandik independentzia izango da, ideologik ezberdintasunak bazter batetan utziz Sindikato honetan sartzeko langileei posibilitateak emanaz. Independentzia, batasunarako garantia bat dela esan dezakegu. Baina independentzia gaia argi eta garbi utzi behar da. Nahiz eta Alderdi Sindikalismoa arrisku bat eta langilerientzat kaltegarria izan, honek ez du nahi esan apolitizismo onhartu behar dugunik.

Independentzia hau esan nahi du: Alderdiaren alternatiba guztiak Sindikatoek ez dute onartzeko dependienteak direlako; alternatiba horik





oinharriak eztabaidatuak eta onhartuak izan direlako baizik.

### 5.—SINDIKATO BATERAKOIA.

Sindikato hau, batez ere Euskadiko langileak sartzeko da eta beronen egituretan kide izateko. Baita ere Euskadi barruan langileen alde lan egiten duten erakunde guztiei, langileen batasuna premiazko ikusten baitute.

Langileen batasunerako biderik garrantzitsuena oinharriturik datorrela onhurturik, goi mailatik egiten diren erabakiak lagungarriak direla konturatzen gara.

Organik batasuna lortzeko, ekintzarako batasuna beharrezkoa da.

### 6.—ASANBLADAR MUGIMENDUAREN ALDEKO SINDIKATOA.

Sindikato honen helburu garrantzitsuenetarikoa bat, Langileen asanbladak bertan ordezkari aukeratu alde egon da. Baita ere langileen beste asanbladekin koordinatzea, langileriak historian zehar horixe adierazi baitu, eta horrekin batera Langileen batasun eta kidesun gehiena sortzen baita.

Sindikato honen kideak asanbladar mugimenduaren alde egongo dira. Hau da, Langileen Asanbladetatik (zein politik eta sindikal erakundeetan egon edo egon ez) ordezkariak aukeratzearen alde egotea, errepresentatibidade era hau ez dagoen lekua, eta dagoen edo sortzen ari den lekuan, beste asanbladekin koordinatu, indartu eta finkatu.

### 7.—SINDIKATO INTERNAZIONALISTA.

Mugarik ez duen ezagutzen kapitalismoaren kontra langileria barnean sortutako languntasun internazionala da bere erantzuna. Horregatik une honetan oso garrantzitsua da kapitalismoa, multinazionalen bitartez mundu guztian hedatua baitago.

Guk Euskadiko langileok, nazional eta sozial mailan zapalduok, gure interesak defendatzeko tresna egoki bat egiten dugun bitartean, Espainiar Estatuko langileei onhararazten diegu.

Espainiar Estatuko eta mundu guztiko langileekin laguntza internazionalista ez da posible nazionalitate zapalduak dirauten bitartean, eta batez ere Euskadiren kasuan: Hemen langileria, nazional libertatearen alde burrukan, lehenengo doa. Zapalkuntza irautea Herrien liberaziorako eskubidea ez onhartzea da eta lagunki ez burrukatzea hau errezago izan dadin. Hemen datza benetako internazionalismoa.

Nazional marko guztiak igaroz, nazioen arteko laguntasunaren alde gaudela argi eta garbi gera dila. Eta hemendik aurrera, hau honela izan dadin, gai guztietan laguntzeko prest gaudela adierazten dugu.

Espainiar Estatuko langileen batasunak, nazio guztietako batasunerik eta organizaziotik igaro behar du eta errespeto, independentzia eta berdintasunezko harremanak finkatuz.

Hemen datza benetako batasuna eta internazionalismoa erabat finkatzen da.



### 8.—PATRONALAREKIN NEGOZIATZEKO AHALMENIK EZ DUEN SINDIKATOA.

Euskadiko langile guztiak langile burrukan kideak egiteko eta beraien arazoan irtenbideak aurkitzeko konprometiturik gaude. Eta patronalarekin harremanetan jartzeko, lantegietan aukeratutako ordezkariak eta ez Sindikatoez baliatu behar dela uste dugu.

Sindikato honen sindikal eginkizuna langileen asanbladak eta mugimendua indartzeko eta laguntzeko konpromisotik hasten da, batez ere. Horregatik, ez da beren kideen defentsarako sortzen, langileek asanblada menpean jarritz, beraien interesak defendatzeko, baizik.

Asanbladek nahi izango balute Sindikato bezala negoziatuko genuke, asanbladen erabakiak onhartzen ditugulako, baina hauxe egite-

# EUSKAL HERRIAN

rakoan Asanbladak berak, aukeratutako ordezkarien (Sindikatoetako kideak edo ez) bitartez izan behar duela negoziazioa, argi eta garbi asanbladatan utziz.

Sindikatoek (denak batera edo bakoitzak bere aldetik) ezin dute inondik ere adierazi langileen errepresentatibidade berena denik, are gutxiago langile guztiak beraietako kideak ez diren bitartean. Horrela uste dugu guk.

Asanbladei bakarrik darie benetako errepresentatibidadea.

## 9.— KIDEGINTZAKO SINDIKATOA

Zuzenik parte hartzea, Sindikato honen kideen eginkizuna dela errespetatuz, Sindikato honek kidegintza aurrera eramango du, indar korrelazio ongariago bat aurkezterakoan, puntu hauk lortzeko.

## 10.— SINDIKAL PATRIMONIOA BERRIZ ESKURATZEA.

Sindikato honek, derrigorrezko zergez eginkizun ko bertikal sindikatoaren patrimonioa esijituko du.

Patrimonio hori langile guztiei dagokienero, Patrimonioaren administraketa, asanbladetatik sortutako ordezkarietara dagokie.

## 11.— SINDIKATOAREN BEREZKO DEUSEZKETA.

Langileen asanbladetatik irtendako errepresentazio zuzenaren koordinaketa eta finkaketa sortuko denean, Sindikato hau, beraz, deuseztu egingo da batasun helburuak kunplitutzat ikusten dituelako.

Errepresentatibidade zuzena geroago eta gehiago finkatzen diren bitartean Sindikato hau bere eginkizuna uzten ariko da eta benetako finkaketa sortuko denean, beraz, deuseztu egingo da.

# «Txaketaz aldatzeko» erarik dotoreena.



Une honetan daramaguna da. Txaketan aldatzea. Denon iristen bai zaigu eguneratzeko ordue.

Baina badira oraindik ere formak. Eta ez da beharrezko helburuak aldatzea txaketaz aldatzeko. Ezta alkandora aldatzea ere. Ez eta korbata ere. Ezta neurrizko traje bat egiteko ere.

Alda zaite jaskiz. Gaur-gaurko, dotore, praktiko. Egungo estilon. Garai berrien neurrian. Zuzen neurri hortan.

Auzmendi etxean.

## AUZMENDI

Vergara, 1. Tfno. 414060.

DONOSTIA

Gizon jaskiak neurri-neurrian.



# diego etxean dugu!

Diego bere herri kokorrera heldu da. Erane-  
gun Carabanchelen zegoen oraindik. Derioko bide  
gainean, sarreran, norbaitek ikurrin handi bat ipini  
du. Diegoren begiak harriturik daude. Orain dela  
hiru urte goardiak harrapatu zuten eta geroztik de-  
na nekea, mina eta negaira izan da, bai beretzat eta  
bai bere senidentzat, bere emaztea den Juanitaren-  
tzat batez ere.

Automobila ikurrin azpitik pasatzean Diego-  
ren taberna aurrean dagoen txistulari taldeak "Ba-  
tasuna" kantari ekin dio. Gaur hemen egindako ga-  
rrasiek Diego, Euskadi eta burruka goratzen dute.  
Diego eta Juanita, Juanita eta Diego elkar jaitsi di-  
ra automobilatik. Txaloak ugari. Dantzari bat bere  
omenaldia egiteko prest dago. Diego gudari zaha-  
rrentzat guztia besarkada eta mususa da. Begi  
batzuk bustiak daude.

Jendea Diegoten inguruan ipini da. Aurrean  
dantzariak gure dantza herrikoienak egin ditu. Nor-  
baitek "Gora Euskadi Askatuta" hitzez osoturik  
dagoen pankarta bat irteten du. Beste batek ikurri-  
na bat. Diegok dantzariaren lana begiratzen ari da  
arreta handiz. Gero Diegok "Gora Euskadi Sozia-  
lista" eta "Gora Euskadi Batua" ohu egiten du.  
Lehen esan digunez "gartzela barruan lehen nituen  
ideiak gehiago sakondu ditut". Guztiok kantatzen  
hasi gara. Diegok hala esaten dit: "Herri hau txike-  
rra baina alai da". Gaur batez ere.

Baina dena ez da alaitasuna. "Barruan dauden  
nire lagunak guztion artean atera behar ditugu",  
dio Diegok. "Ni gartzelatik irtetean guztiok alaitu  
ziren, baina niri min bizi bat sortu zitzaidan he-  
men, hemen barruan, une berean". Diegok lagun  
onak egin ditu barruan. Nor izan da bere lagun one-  
na? "Guztiak izan ditut lagun onak", erantzun digu  
gizon jator honek. Burrukari jarraitzeko asmoak di-  
tu, nahiz eta hirurogei urte inguruan izan.

Hiru urte gogorretaz hitz egin dugu Diegokin.  
Bere une txarrena, La Salveko koartelean eman zio-  
ten egurra. Gai honetaz hitz egitean Diegoren begi-  
ak tristatu dira. Buruan hartutako kolpe bat izan  
zen okerrena eta gero ondorio serioak izan zituen.

Orain hobe dago. Hala ere mediku batengana joate-  
ko asmoak ditu Diegok, ez baita gartzela gaisotasu-  
nak eta zauriak sendatzeko leku egokiena. Gai alai-  
tsuago batez ere hitz egin dugu: kaleratzea zihoala  
esan ziotenean sekulako oihuak eman zituen. Bere  
albokoek ere bai. Berri on hau hartu zuenetik kale-  
ra libre heldu arte hiru ordu pasa ziren: "Hiru ordu  
horiek hiru urteak baino luzeagoak egin zitzaizki-  
dan", esan digu.


"Amnistiaz zer, Diego": "Amnistia engainu  
bat besterik ez da. Herriak lortu behar du, geuk lor-  
tu behar dugu". Diegoren begiak ilundu dira berri-  
ro. Hiru urtetan lagun onak egin baititu, gizon go-  
gor eta bihotzgabeakoak ere ezagutu eta sufritu di-  
tu. Mediku baten izena eman digu. Mediku hori hil-  
tzaile huts bat zen. Orain, atzerantz begiratzean,  
horrelako gizonak ameskaitz batetakoak dirudite.

Kantak isildu dira. Guztiak Diego begiratzen  
dute, erdi erdian baitago. "Zer esango deusuet?  
Hitzak ez zaizkit ateratzen", dio Diegok. Bere  
emazteak bultzakadatxo bat eman dio: "Diego,  
hauek guztiak egin dutena eskertu!". "Eskerrik as-  
ko guztioi!", dio Diegok. Bere estarian korapilo  
bat egin zaio. Hainbeste gauza esateko, eta ezin  
esan!

Diegok euskara asko maite du. "Gartzelan sar-  
tu nintzenean bizkaieraz ez ezik nekien", esaten di-  
gu", "eta orain gipuzkeraz, bizkaieraz eta edozein  
euskalkiz egiten dut. Gartzelan euskara asko ikasi  
dut, baita ere berrogeiren bat euskal liburu iraku-  
rri!".

Emozioak ugari izan dira. Gaurko eguna, alai  
baina oso nekagarria. Diego nekaturik dago. Bere  
emaztea ere bai. "Egun batzutan atsedena egingo  
dugu", esaten dit Juanitak. "Bihar edantokia ezin  
genduke ireki". Jakina. Menditara haize on eta osa-  
sungarriak hartzera joango dira. Gaua da. Ikurrina  
bildu dute. Jende taldea desegin da. Diegoren egun  
eder hau amaitu da. Azkenean denoi azken agur  
bat egiteko, Diegok "Urrenarte!" esan du. Horrela-  
ko beste egun bat espero al du?.

Ongi etorria, Diego! Ongi etorriak, gure preso  
guztiak!





## TXEMA LARREA ETA "TXATO"RI ONGI ETORRIA

### BASAURIKO ONGI ETORRIA

Martxoaren 26an Sondikako aireportua eskal kutsuaz bete zen. "Aviaco" konpainiaren egazkinetik ez zen jetxi oraingoan ez foot-ball jokalaria famatu bat, ez eta zine jenderik, nahiz eta aideportuko aretoan ehunen bat lagun ongi etorri bat emateko prest egon. Eskaileratik jetxi zen gazte garaia eta beltzarana, guretariko preso politiko bat zen: "Txato" Artetxe. Airetatik etorritako gazte hau bi egun lehenago Puertoko gartzelan zegoen.

zien. Ordu bata t'erditan udaletxe aurreko plazan bost mila lagun bildu ziren, K.A.S.ek egindako pankarta haundi batzu beren artean ikusten zirela. Ordu biak laurden gutxiagotan Txato eta Txema plazara heldu eta "jeep" baten gainean zutik jarririk hitz egin zuten, irasuegirekin batera. Txato eta Txemaren hitzak laburrak izan ziren eta, gainera, askok ez zituzten entzun bozgorailuak gaizki ipiniak baitzeuden. Hirurek hitz guttiz esan zute-



### ARGAZKIA: R. ZARRABEITIA

"Txato" aretora heltzean ikurriñak eta "Batasuna" kanta airean zabaldu ziren. Artetxeren lagunak eta senideek "Txato" besarkatu zuten, txistulari batek aduanako goardien aurrean gure kanta sutsuenei ekiten zien artean. Ongi etorria ematera joan zirenen artean Basauriko beste preso bat, Txema Larrea, zegoen, Goyo Lopez Irasuegi eta Arantza Arrutirekin batera.

Ongi etorria amaitu zenean Txato, Txema eta bere lagunak toki "izkutatu eta ezezagun" batetara joan ziren, barra-barra lasai hitz egiteko. Txema Larreak, ostiralean Basaurira heldu ondoren, "Txato" ikusteko gogo handiak zituela esan zigun, "mila gauza" kondatzeko baitzituen.

Igandean, Basaurin, herriak bi presoek, Txema eta Txato basauritarrei, bere ongi etorria eman

nez, amnistia orokor bat eta indar errepresiboen kontrola lortzeko, herriak burruka gogorra egiten segitu beharko zuela izan zen. Ohiturazko kantak abestu ondoren, bost mila lagunak, beste mila pare batekin elkaturik manifestaldi bat egin zuten. Manifestaldi aurrean, lehen zerrendan, Txato eta Txema egon ziren. Horrelako batetan goardia zibilek ke poteak botatzen agertu ziren eta lasterkada asko izan ziren. Talde batzuek harriak bota zituzten goardien aurka eta, esan digutenez, manifestaldian partaide ziren batzu kolpez zaurituak gelditu ziren. Lasterkadak hiru t'erdiak arte iraundu zuten, Basauriko kaleetatik zehar ongi etorri paketsu bat nola desegina izan zen guztioi jakin araziz.

# Gure prentsa behar dugulako

## Geurea:

Bertako arazoak,  
bertako ikuspegiz  
aztertuz

## Askea:

Erriak bakarrik  
ertsatuko duena



**DEIA**

DEIA egunkaria da. Hainbat aldizkari ere argitaratzen ditu. Argitaletxearen egoitza: Iruñea, Iruñeko hiriburuaren erdian. Argitaletxearen telefono-zenbakia: 34-971 00 00. Argitaletxearen fax-zenbakia: 34-971 00 01. Argitaletxearen web-gerria: www.deia.com

Gure lurraren

Gure lurraren deia

## ESKERRAK ZUEI, ANTI-EUSKALDUN JAUNEI

Bai, eskerrak zuei, anti-euskaldun jaunei, Euskal Herria zutik ipintzen eskaini diguzuen laguntza baliosarengatik. Eta are eskerrik beroagoak Euskal Herrian jaiok izan baitzineten, hau da, euskal traidore zaretelako.

Herriaren ahotik euskara kendu erazten ahalegindu zineten, "vascuence" eran museotan gordea izan zezan. Baina herriak zeuen tranpa igarri zizuen eta zuen euskararenganako gorroto ezin ezkutatu horrek odola berotu egin zion. Zuei esker, bada, ez dugu museotarako "vascuence"rik, euskara birbizturik baizik.

Zuek, Euskaltzaindiari limosnatxo bat ematen zenioten Diputazio eta Aiumentatu anti-euskaldunok, orain euskara gorde behar dela esaten diguzue. Zer egin duzue 40 urteotan euskararengatik? Herriak igarri du zuen gezurra eta horregatik zuen dimisioa eskatzen du.

Gure hiriak etxez bete erazi dituzue desordenu izugarrian. Ez dugu gune berderik, ez kirol zelairik. Horri esker, zuen inkopetentzia eta diru gosea ikusi izan duelako, herriak ez du nahi eskuindar agintari-rik.

Eta Euskal Herrian eraikitzeke ziren industria moderno eta handiak, zuek utzi dituzue, protestarik gabe, beste lurraldetara joaten.

Zuen aginte aukietatik ez duzue deus egin gizarteko pertsona marginatuen alde. Jubilatua, subnormalak, gaixoak, gartzelaratuak, ihesiak, langabeak, zuentzat arrotz gertatu zaizkizue. Horri esker, eskaini diguzuen eskandalu lotsagarri horregatik, euskaldunak ezkertiar bihurtu dituzue.

Eta Euskal Herriak, munduko beste edozein Herrik bezala, ikurrin bat eskatzen zuenean, zuek museotik ateratako pendoi batzu eskaini zenizkioten.

Baina Euskal Herriak ez du "vascuence"rik nahi, euskara bizia baizik. Ez du "pendoi"rik nahi, euskal ikurrina baizik. Ez du zapalkuntza sozio-politikorik nahi, zuzentasuna baizik.

Horregatik, zuek naska eta higuina eman diozuelako, horregatik zutitu da Euskal Herria. Zuei esker.

Eta orain zatozte, aurpegiak ezkutaturik, izenik emateko lotsaz, umiltasunaren txapeldunen eran, Alianza Popular-en "versiones provincianas" eskaintzen: Alianza Foral de Navarra, Alianza del Señorío de Vizcaya, Gipuzcoa Unida... Lehen "Euskal

Herria "izenak tripako mina ematen zizuelako "el Norte" erabiltzen bazenuten, orain ere ukatzen diguzue Nazio gisa zor zaigun izen batua. Baina Herriak ba daki nortzu zareten, zuek esnatu zenu-  
telako.

Zuei esker, bada, Euskal Herria ez da tranpan jausiko. Zuei esker gure hatzamarrak gora doaz V adierazten. Zuei esker... IRABAZI DUGU!

Eta Herriak, esker onekoa denez, hainbeste maite duzuen museoren batetara eramango zaituzte, han, sekulorun sekulotan, "para siempre", bufoi fosilizatuen pendoi izan zaitezten.

Xabier Gereño.

**EUSKALDUNAK,  
erosterakoan,  
euskarazko  
publizitatea  
kontutan  
hartzen du  
anaitasuna**



# EZINA OMEN ZENA, EGIA BIHURTURIK



*Zoritako zentrale nuklearra, Espainiako Guadalajaran.*

Zentrale nuklearretaz aurrera eramaniko eztabaidan erabilitako gai bat, istripuen arazoa izan da. Batzuren eritziz, seguritate sistemak ongi kalkulaturik eta pentsaturik zeudenez, ez zatekeen posible istripu grabarik gertatzea, eta horrela, osasun publikoaren aurkako problemarik ez zatekeen sortuko. Beste batzuren eritziz, ordea, istripuen arazoa arlo teorikoan baino areago arlo praktikoan eztabaidatu behar zen. Azken hauek diotenez, zehaztasun dudagarriko eredu matematikotan finkaturiko teoriak gorabehera, istripuak gertatu egiten ziren. Eta gertatzen ari dira. Hala ere, sarri ez dugu horien berririk, sekretu gisa gordeak baitira. Dena den, zorionez edo zoritxarrez den hori ez dakit, sekretuak hautsi egiten dira batzutan eta berri harrigarriak heltzen dira gure belarrietara. Kasu honetan, adibidez, bi dira heldu zaizkigun berriak: Espainiatik bata eta Japoniatik bestea.

## ISTRIPU ERRADIOAKTIBOIA GUADALAJARAN?


AEORMA (Asociación Española para la Ordenación del Medio Ambiente) delako antolakundeko ordezkarien eritziz, zerbait arraro gertatua dateke ihazko udan Zoritako zentrale nuklearrean. Istripu erradioaktiboren bat ote? Beharbada; edo, hori izan daitekeela uste dute behintzat, eta arazoa publikoki salhatzera ausartu dira. Zertan finkatzen dira, horrelako eritzi gogorrik eduki eta agertzeko? Zeren eta salhapena larriegia baita, hori bultzatzen duen argumentu sendo eta fidagarririk gabe plazaratzeko. Hala ere, dirudienez, ba dituzte zenbait argumentu tinko, eta interesgarri delakoan, guk ere horietako batzu jakin eraziko dizkizuegu hurrengo lerroetan.

Ihazko udan, Zoritako zentraleko langile bat modu arraro batez hil zen. Ofizialki esan zenez, hepatitisak hilobiratu zuen. Autopsia eginez, leukemia zorrotzez hil zela frogatu zen ordea. Ikusi zenez, leukemia hau indiferentziatua zen, eta gorputz osoan zehar zituen lesio bereziak: hezurren muinean, gibelean, giltzurrunetan, biriketetan, trakean, gongoil linfatikoetan, barrabiletan, zerebroan,... Di-

rudienez, hauek guztiok erradiapen zorrotzez sortzen den sindromea adierazten dute. Kalkulatzen denez, langile hark kolpe batez jasaniko dosi erradioaktiboa 2.000 rem-*ez* gorakoa izan zatekeen. Ohar gisa, diogun ezen zentrale nuklearretan dauden langileek urtebetean har dezaketen dosirik gorrena 5 rem-*etako* dela eta bizitza osoan 150 rem-*etako*. Faktore horrek istripu bat gertatu izan dela pentsatzera garamatza, zeren eta zentralearen funtzionamendua zuzena izanik ez baita normale maila horretako erradiapenik jasatzea.

Langile horren kasutik abiatuz, AEORMAren ordezkariak hauzitan jarri dute arazoa Guadalajarako hauzitegian. Osasun publikoaren aurkako deliktu bat egon datekeela diote. Diotenez, Tajo hiri batiaren urak kutsaturik geratu dirateke. Ba dira, hori pentsatzera daramatzaten zenbait datu. Bateatik, hibaian, behera dagoen Driebes herriskan, hogeita hamar afekzio gastriko gertatu dira 1.976.eko Urriaren eta 1.977.eko Urtarrilaren bitartean, eta horrelakorik lehen ez omen zen gertatzen. Modu berean, zentralea martxan jarri eta gero, hamabost hilaur edo aborto gertatu dira denbora tartelabur batetan kontzentratuak zentralearen inguruetan, eta hori ez dateke normala nekazal eskualde





*Tajo hibaian lau kilotako karpak zeuden lehen. Orain hogei ta lau kilotakoak omen daude. Handiegitxoa hazkundera, berezkoa izateko...*

batetan. Bukatzeko, hibaiko arrainen kasua aipatzea komeni da. Bertara doazen arrainketariak diotenez, zentrala egin aurretik, hibaiko karpak lau kilotara heltzen ziren gehienik jota. Gaur egun, ordea, hogei ta bost kilotakoak harrapatzen omen dira, eta zenbait urpekarik diotenez, uren hondotan metro eta erditako karpak ikusten dira. Mutaketa genetikoak gertatu ote dira? Honela bada, ba dirudi, horien errua zentralari eta bertako arduradunei egotzi behar zaiela.

Baldintza hauetan AEORMAkoek galdera hauk egiten dituzte: Istripu handirik egon al da? Eta erantzuna baiezkoa bada, nola gorde daiteke horrelakorik sekretutan?

#### JAPONIATIK DATOR BESTE NOTIZIA...

1.977.eko Martxoaren hamazazpian, ezohituagatik harriturik utzi gintuen berri bat hedatu zen Espainiako Radio Nacional delakoaren uhinen bidez. Japoniako parlamentari batek salhapen gogorra egin du eritzi publikoaren aurrean. Esan duenez, 1.966. urtetik hona 75 heriotze anormal gertatu dira bertako zentrale nuklearretako langileen artean: kantzerrak, leukemiak,... Gainera, salhatu duenez, berri hori lehenago ezagutu ez bada, hango


Gobernuak isilik gordetzeko egin duen indarragatik izan da.

#### ZER PRENTSA?

Lemoizeko zentralearen eraiketa aurrera doan uneon, zer pentsaturik ematen digute goiko berriok. Zentraleen bizitze praktiko eta errealean, istripuak oso posible direla dirudi; izan ere, mundu osoan zehar hainbat gertatu dira. Bestalde, eta istripuen ondorioei begira, Zoritako zentralea 160 MW-etakoa dela eta Lemoizekoa —lehen urrats batetan behintzat— 2.000 MW-etakoa izanen dela pentsatu behar dugu. Aldea dago, gero!

Erradioaktibitatea ikusten ez den arrisku bat izanik, istripurik egon denentz jakitean datza arazorik eta kezkarik larriena, zeren eta orain arte istripuok sekretu mailan gordeak izan baitira. Hori dela eta, nire kezka Lemoizeko zentralea kontrolatuko eta zuzenduko dutenengan jarriak dira. Nork kontrolatuko ote du Lemoizeko zentralea? Iberduerok? Adminalgo zentralak? Fidagarritasunik merezi al digute?

J. R. Etxebarria

**PRENTSAURREKOA**

1977.eko Martxoaren 21ean Euskal Herriko informatzaile pila bat deituak izan ginen, Euskal Kostalde Ez Nuklearraren Defentsarako Batzordeak eraturiko prentsaurreko batetara. Bertan, Batzorde horren ordezkariak azken bolada honetan egin dituzten gestioez informatu gintuzten.

Martxoaren 21ean Mungiko "Andra Mari" elkarteak idatzi bat aurkeztu du Bizkaiko Gobernu Zibilean, Lemoizeko zentralearen eraikuntza geldierazteko eskatuz. Hori eskatzeko, legean finkatzen da, esanez, Gobernua legeak bete erazteko dagoelarik, Lemoizen kasuan Iberduero, S.A. empresa legea bete eraztea bortxa dezala.

Idatzi horretan esaten denez, Gobernu Zibilak Lemoizeko eraikuntzen ilegaltasuna ezagutzen du. Edo ezagutu egin behar luke behintzat, zeren eta bere garaian txosten juridiko zehatzak libratu baitziren Bizkaiko Diputazioan eta Mungia eta Lemoizeko Udaletan. Hala ere, gure ordezkari izan behar luketen erakunde hauek, ez dute kasurik egin, eta frogaturik dagoenez, ilegalak diren eraikuntza batzu, batere trabarik gabe egiten ari dira, agintarien oneritzi praktikoarekin.

Prentsaurreko berean, Euskal Kostalde Ez Nuklearraren Defentsarako Batzordeak dei bat zabaldu nahi ukan die Iberdueroko azionistei, elkarte profesionali eta alderdi politiko eta zentrale sindikalei. Interesgarri delakoan, ikus dezagun, banan banan, horrelako talde eta pertsonen diotsena.

**IBERDUERO S.A.ko AZIONISTEI**

Honela mintzatzen zaie deia: "Erabakiak zuzenki ez hartzeak ez zaituzte erantzunkizunik gabe uzten. Ez beharizan energetiko aipatuen bidez eta ez etekin energetiko utopikoen bidez, ezin justifika daiteke euskal popularen osasun, seguritate eta ongietonaren aurka doan proiektu bat". Aurrerago dionez, "Garbi gera dadila ezen euskal populua proiektu honen erantzule gisa, Administralgoarekin batera azionistak ere modu berean kontsideratzen dituela, zeren eta haien laguntzarik gabe, Iberduerok ezingo baitzuen atentatu hori egin".

Bestalde, gogoratu egiten die ezen, Huelvako satsudurari buruz Tribunalen Supremoko Fiskalaren Memorian zera esaten zela "Satsudur arazoaren dimentsio juridikorik interesgarrien eta problematikoenetarikoa, pertsona kolektiboen erantzunkizun

penala da, bere goimailako exekutiboena eta bere zuzendaritz organo kolektiboena".

**ELKARTE PROFESIONALEI**

Batzordekoen eritziz Elkarte Profesionalek Lemoizeko proiektuaren aurka agertzeko obligazioa dute. Legeak berak ere horrelako kasuetan parte hartzea gomendatzen die. Hala ere ba dirudi, aurpegia eman duen bakarria Arkitektuen Kolegioa izan dela. Besteek egintza kontsumatuen politika segitu nahi dutela dirudi.

**ALDERDI POLITIKO ETA SINDIKATOEI**

Hauei bi eskari egiten dizkiete. Lehena, orokorra, Euskal Kostalde Nuklearrak duten eritzia ager dezatela, eta bigarrena, espezifikoa, Barasordan (Lemoiz-Mungia) egiten ari den zentralari buruz duten planteiamendua argi jar dezatela. Eskari hori egiteko duten arrazoia, euskal komunikatearengan proiektu horiek ukan dezaketan eragina eta garrantzia da.

**AZKEN OHARRAK**

Prentsaurreko elkar hizketan zenbait trapu zahar ere agertu ziren. Adibidez, hau. Zentralea kokaturik dagoeneko lurringurua, nekazal eta jolaste lur bezala kalifikaturik dago. Lan egiteko, industriarako lurak izan behar lukete. Hala ere, ez da izen aldaketa legalik egin. Gehiago oraindik Iberduerok izen aldaketarako eskaria egin dio Hirigintzako Batzorde Probintzialari, eta honek ez erantzunik eman nahi ukan, zeren eta, dirudienez, ez baitzegoen prest, hain erantzunkizun handirik bere sorbaldetan eramateko. Ilegaltasun hori gorabehera, eraikuntza aurrera doa, eta esku sartu behar luketen antolakunde ofizialek ezikusiarrena eta ezentzunarena egiten dihardute.

Euskal Kostalde Ez Nuklearraren Defentsarako Batzordekoek irtenbide bakarria bezala, eraikuntzaren gelditzea ikusten dute. Alternatiba bati buruz, diotenez, berak ez dira kontsultore. empresa bat. Dena den, alternatiba posibleak herriaren ordezkariak parte hartuz eginiko negoziaketa baten bidez aztertu beharko lirake. Honetaraino prentsaurreko hitzak.

Ramon Garai.

## HAZIENDA

Hazienda gaiak benetan garrantzi handia du Herrialdeetako askatasunezko giro barnean eta Nazionalitateen Autogobernuraneko bide mailetan. Herrialdeen autonomiazko edonolako antolaketak, nahiz legezkoa nahiz administrazio-ekonomiazkoa izan, autonomia horren neurria dena den, behar beharrezkotzat jotzen du Herrialdeak bere esku, egoera berri horretan sortzen diren gastu eta arazoek buru egiteko beharrezko dituen bideak edukitzea. Hau honela izan ezik, Autogobernuari buruzko asmo guztiak, asmo huts-hutsak, inolazko edo benetako errealitatearik gabekoak, besterik ez dira izanen. Hau dela eta Haziendaren antolamenduak egoera berri eta ezberdin honen zerbitzurako antolatua izan behar du. Herrialde bateko Haziendaren goitik beherako askatasuna zerak mugatzen du: Aurreko egoera Zentralista eta berdintzaileko zerbitzuen arteko zeintzu dauden orain antolamendu berrian Herrialdearen eskutan erabakitzeak. Horregatik Herrialdeko Haziendaren eta Zentralizatuaren arteko harremanak ez dira, noski, historiatik kanpo dagoen aldaezinezko zerbait edo, une bakoitzean konpondu behar den arazoa baizik, hain zuzen, beste maila batzutan lortu den edo lortu daitekeen askatasun-neurriari erabat lotutako gauza.

Tradizionalki Haziendaren eginkizunak era askotakoak direla esan ohi da, eta ondoko hauk aipatzen dira gehien bat: Bakarrekoen kabuz egiten diren zerbitzuak eta ondasunak ugaritzeari bultzatzea; gizarte barneko herritarren artean irabazketak eta ondasunak birbanatzea eta aurrerapen ekonomikoari, zentzuz tajutuz, laguntzea. Eginkizun guzti hauek, benetako erantzuna hartzekotan, Euskal Herriko ikuspegiz begiraturik, neurri batean

edo bestean, Euskal-Agintaritz Nazional baten eskutan egotea eskatzen dute.

Gaur egun, aurrez aurre ditugun arazo nagusiek, hots, alderdi industrializatuek hain biziki aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten azpistrukturazko diru-laguntzak, eta kontrolak, beste sailtako bizi-irteera normalek, hirigintzako plangintza gabeko egoera larriak, eta euskal ikas-kuntza herri-diruz finantziatu beharrak aski garbi adierazten, dute beste arrazoi askoren artean, Euskal Herriak Haziendaren kontrola behar duela, aipatu dugun lehen mailako eginkizunari erantzuteko.

Kontrol horren beharrian hori, oraindik garbiago agertzen da bigarren eginkizuna gogoratzean, hots, Euskal Herriak bere etorrera mugatuko duen demokrazi bidetik jokatuz, zerga sistema kontrolatu behar du, horretarako euskal zergalarien arteko diru-aldaketak eta laguntzak neurtuz eta irabazketak joko politiko berezi batez bananduz.

Azkenez, produkzioa ugaritzeak eta kontrolatzeak, sistema egoki betebeharen bidez, Euskal Agintaritz Nazional baten eskutan egon behar du. Espainiako Haziendak eraman duen alorrez-alor jarritako aurrerapen sistema aldatu egin behar da, ugaritzea zuzendurik eta berdindurik erabiliko duen Euskal Hazienda baten bidez, laguntzak eta, ekonomia oso bateko plangintza demokratikoaren barnean beharrezkotzat jotzen diren entresa ekonomikoei eskainiz.

Hala ere, kontutan hartu behar da, Hazienda barnean Herrialdeetako mugetatik kanpo dauden eginkizunak ere izaten direla. Autonomia neurtu bateko egoeran, Hazienda Zentralak bere eginki-



zun mugatuak ditu, hots, Estatuako presupostua bide harturik, ekonomiazko politika eramatea, zergen politika tajutzea, denen zerbitzu direnak finantziatzea (Errege-etxeko gastuak, Nazioarteko eginkizunak, Herrialdeen gaintik dauden lanak...) Honek zera adierazi nahi du, Herrialdeetako Autonomiek ezin dituztela, inolaz ere, sail batzutan Hazienda Zentralaren eginkizunak desegin. (Baina, honek ezin du, inolaz ere, ekarri Agintaritzak Zentralak Herrialdeen gaintik askatasun osoa edukitzerik, beren joeretan Estatu Zentralak eta Herrialde askatuak elkarturik erabakitzea baikik, azken batean Herrialdeko pertsonen zerbitzurako direnez.

Hazienda bikoitza (Herrialdekoa eta Zentrala) egoteak, beren arteko harremanak aztertzea eskatzen du. Oraingoan alde utziko dugu, Probintzietakoaren antzera berrogei urte luzetan hain baztarturik edukia izan den Udaletxeetako autonomia arazoa, Euskal Herriko autonomia egoera barnean aparteko estatutu bat behar duelako.

Azken aldi honetan, bai Bizkaiko bai Gipuzkoako Erregimen Bereziaren eustarria gastuen deserdiratzean eta ez zergen sarreretan dagoela enzun ohi da. Antza denez, hau izan da arloa aztertzeke eskuz izendatua izan zen Komisioak ataratako ondorena. Hau honela, Herrialdeetako Agintaritzek esku loturik segituko lukete, zeren alpeerezkoa bailitzateke diru-laguntzak eta inbertsioak egiteko plangintza demokratikoak egitea, gero egia bilikatzeko behar duten diru-ahalmenik ez badute. Euskal diru-autonomiak, kontrol-ahalmen bi hauk ukan behar ditu barne: Gastuena eta gastu horiei erantzuteko beharrezko diren sarrerena.

Diru-sarreren erdibide baterako kontrol era bat Itun erazko sistema bat litzateke, Hazienda zentralak batzu eta Euskal-Herriak beste batzu kontrolatuz. Modu honek duen arazorik handiena zera da, Estatuari esku zabaltasuna ematen zaiola eta Agintaritzak Zentralak zerga zailenak eta dirurik guttien ematen dutenak (baserrienak, hirietxeenak... eta honelakoak) Herrialdeen esku utziko litzukela. Gainera, beste hau ere sortu izan du sistema honek:

Askatasun osoa ematen dio Agintaritzak Zentralari berak uste dituen zergak ugaritzeko Herrialdeetako Haziendak txirotzera jotzen duten artean. Arrazoi berberetatik ukatu egin behar da, baita ere, Herrialdearen interesen zaintzaile agertzen den Komisio dontsu horrek proposatzen duen Euskal Herakundearen finantziatze-era, Agintaritzak Zentralak jarriak dituen zergak birzamatuz egitea proposatzen duenez.

Hazienda bikoitzaren (Zentralaren eta Herrialdekoaren) antolamendu-sistema edo zerga ordaintzaileak bi eratako zergak aitortu behar hori aldenduko lukeen era, hau izan litzateke: diru-biltzea eta sarreren bidezko bananketa egitea Euskal Haziendaren esku uztea, Administrazio Zentralari, Estatuak Herrialde guztien zerbitzurako egiten dituen eta banandu ezinezkoak diren gastuetarako, Herrialde bakoitzari tokatzen zaiona ordainduz.

Ordainketa hau kalkulatzek, ez du zergatik egin ezinik sortu, batez era Hazienda Zentrala bere diru-kontuetan behar adina garbia izaten bada. Sistema hau, Herrialdeen artean sortutako Diru-Kutxa elkartu baten bidez osatua izan daiteke, Euskal Herriak, beste Herrialdeek bezala, bere sarreretako zati bat horretarako erabiliz, hori egitean, alde batetik neurri automatiko bat (buru bakoitzeko sarrerera bat, langabeen kopurua,...) eta bestetik, hartzeko diren Probintzietako zerga sistemaren aurre-erapenaren ugaritzeari begiraturik ugarituz transferentziak.

Sistema honek, besterik gabe, Euskal Herriari Ahalmen Autonomiko hau ekarri beharko litzokie: Berea litzatekeen zerga-sistema aparteko eta demokratiko bat egiteko ahalmena; Zergen gestio osoa eta bortxa-zergen alorretan ahalmen administratibo-juridikoa. Ahalmen hau erabiltzea, noski, produkziozko gorabeherei, beren antolaketa barnean eta arlo desberdinetan kalterik edo desekilibriorik sortu gabe, egin beharko litzateke. Honek, gainera, ez luke aurrez epaituko, bereak dituen edo bere esku utziak izan diren alorretako Estatuaren bidezko jokera (Duanetakoa, Produktu monopolizatuen zerga, eta abarrena).

Hitz batetan, Euskal Herriko gastu-presupostuak finantziatzea honela eginen litzateke:

1) — Estatuak gaur egun egiten duen bidetik, Euskal Herri osoa edozein gai dela eta bildutako zerga-sarrerak.


— Euskal Herrian jasotako zergak izan arren, beste Herrialdeetako zergalariei kobratutako sarrerak.

— Euskal Herriko zergalari izanik, Estatu barneko beste edozein lurraldetan ordaindutako zergen-diruak.

2) — Estatuak eginiko zatitu ezinezko gastuak edo eta Euskal Herrian egindako zerbitzuen ordainketa.

— Herrialdeen Diru-Kutxara egindako diru-emateak.

Haran








ZEZENIAN  
GELDITUKO  
GARA

ZEZENIAN INHURRI, ERRALDOI AK BIZI DIRA.  
LURRALDE ESKASA DA, BAINA OIHAN HAUNDI  
BATZU BA DAUDE, HALA ERE



LANDARE  
IKUSGARRIAK  
DIRA!

BA GAUDE

INHURRIAK IPARRALDEAN BIZI  
DIRA, HAITZULO BATZUTAN.  
OIHANEKO BIDETIK  
JOANGO GARA.

HATOR  
DYNA

ORAIN-  
TXE.



AiHOTZAZ  
BALIATUKO GARA.



BIDE HAU  
OSO TXARRA DA  
BAINA HAIENGANA  
HELTZEKO LAS-  
TERRENA DUGU.

BAINA ZUHAIZETATIK, INHURRIEK...




RUOVS  
UIN YGOS

YSSBI

# Kriske eta Popolo

Irudiak: Juan Karlos Egillorrek  
Gidoiak: Borja Barandiaranek





# EUSKAL PERTSONA IZENDEGI BERRIRAKO PROPOSAMENDUA

Oraintsu Espainiako gobernariak lege bat eman berri dute; beronetan gaztelaniazkoak ez diren beste izenak ofizialki onhartuak izateko oinharriak ezartzen dira. Hori dela eta, gure artean jende asko hauzitegietara abiatu izan da, bere izenak euskaraz ipintzeko gogoz. Kontua da, ordea, ez dagoela oraindik euskaraz izendegi oso bat ofizialki onharturik, eta jendea, besterik ezaz, eskura etortzen zaizkionez baliatzen dela eskuharki.

Egon, ba dago argitaraturik izendegi on eta luze bat, J.M. Satrustegi euskaltzainak Euskal Akademiaren aginduz eraturia. Herriak ezinago hobeki estimatua du eta nik neuk erabat neure egiten dut hura. Hala ere, geroago azalduko ditudan arrazoiengatik, lan bikain hori ez da euskal izendegi osoa. Hori dela eta, problema honi irtenbide bat eman nahirik, ondoko proposamendua egitera nator.



**Aintzinako euskaldunek beren izen propioak zituzten, baina...**

## EUSKAL IZENAK ZERTZU DIREN

Lehen pausotzat, euskal pertsona izena zer den argitzen hasiko naiz. Oinharritz, euskal izen bat Euskal Herrian euskaldunek tradizionalki erabili dutena da, eta mende askotako jatorria duenean, gainera, izen hori euskararen lege fonetiko berezien arauera moldatu edo egokitua azaltzen zaigu. Alde horretatik, Euskaltzaindiak 1959.eko Apirilaren 2an euskal hitzak zeintzu diren jakiteko eman zuen erizpideak, ene ustez, izen propioen kasurako ere balio du: tradizioa, sustraitasuna, literatur eta herri usuario zaharrak dira jatortasunaren gidari nagusiak.

## EUSKAL IZENEN JATORRIA

Erromatarkuntza aurretik, jakina, ba ziren Euskal Herrian euskarazko izen jatorrak, Akitania-ko eta Pirinio inguruko hilharrietan nola edo hala agertuak (CISON, ANDERE, NESCATO, BIHOX, SENICO...) Izen horietakoren batzu, **Eneko**, kasu, geure garairaino helduak ditugu, baina gehientsuak bidean galdu zitazazikigun.

Erromatarkuntza ondoan visigothuak etorri ziren, baina gure artean ez zuten berauek arrasto handirik utzi. Kristautasunaren sarreraz, ordea, erlijio honetako pertsonaia haundi eta sailduen izenak, debozioz, zabalduz joan ziren, etxeko izen jator zaharrak, pittinka, baztertuz. Erdi Haroan, dena dela, euskaldunek ez zioten beren asmamenerari erabateko ukorik egin, eta, kristau izenen ondoan, euskal sustraiko beste batzu ere bizi izan ziren luzaro (**Semeno, Otsoa, Emazteona, Garzea...**)

Kristau izenak, funtsean, bitarikoak dira: a) Kristo aurrekoak, hots, Testamentu Zaharreko semitarrak (**Adam, Eva, Josepe, Abraham, Benjamin, David, Mikel, Manuel...**) eta b) Kristo ondokoak, hau da, semitarrak, grekoak, latindarrak, germaniarrek, eslaviarrak,... (**Tomas, Joanes, Teofilo, Leandro, Sabino, Martin, Gilen, Roberto, Vladimir...**) bertako sailduen izenak izanki. Guztiok, hasieran, izen nazional bereziak izan arren, laster Elizaren saildutegira pasatu ziren, eta kristautasunaren hedaduraz Europar herri guztietara zabaldu, Mendebaleko munduaren onomastika eratuz.

## HERRI AUKERA ETA MOLDAKETAK

Izan, Elizaren saildutegiko izen guztiak **theoriar** Mendebaldeko Herri kristau guztien ondarea baziren ere, **praktikan** Herri bakoitzak izen horietako batzutarako bere jaugin berezia agertu du, dela debozioz, dela bertakoak zirelako edo zeukatzen fonetika bereziagatik. Horrela ba, sailduen izendegiko guztiak aukeran egon arren, Herri bakoitzak bakar batzu erabili ukan ditu sistimaz, eta besteak zokoratu.

Azken mendeotan Espainiako legeen azpian gaudenetik, euskal izenak gaztelaniazko itxuraz azaltzen zaizkigu paperetan, baina Euskal Herriko lehenagoko artxibo eta dokumentu zaharrak aztertuz gero, laster kontura gaitzke zenbait izen (**Eneko, Peru, Martin, Mari(a), Joanes...**) ia era eksklusiboz agertzen direla, eta ez beste batzu. Izen propioetatik datozen deiturak, bestalde, diogunaren froga nabariak dira: **Perurena, Martinena, Antsorena, Errandonea, Mitxelena, Joanategi, Loperena...**

Izen hautatu horik, bestalde, egunero erabiliak zirelako, euskal hitz arrunten korrontean sartu eta berauen arauera aldatu eta bilakatu dira, gure hizkuntzaren fonetika legeak agertuz: **Heritz, Bazkoare, Martie, Txomin, Domiku, Dota...** Izenok dira, hain zuzen, **Eneko** eta **Semeno** gisako izen zaharrekina batera, gure herri tradizio jatorrena osatzen dutenak, eta **berauei dagokie antonomasiak euskal izenak** direla esatea. Hauxek dira, beraz, gure Herriaren aukera historiko jatorraren ispilua eta, eredu hobestekoak.

Hau, ordea, ez da euskararen kasu bakarrez noski. Espainian ere, egon, ba dago **Renato** moduko izenik, baina ez da ia inoiz entzuten, frantsesezko kidea, **Réné** hategia, usu erabilia den artean **Kyril** eta **Metodi**, bestalde, eslaviar herrietan usatzen diren handikoak dira, espainolez **Cirilo** eta **Metodio** izen ezezagunak gertatu arren. **Begoña, Arantzazu, Estibalitz, Leire** edo **Garikoitz** bertan erabiltzen ditugu maizenik, **Monserrat** eta **Jordi**, antzeko arazoengatik, aldiz, Katalunian, eta beste nazioetako modu berean jazotzen da.

## BESTE IZENAK

Hor daude, beraz, oinbarrizko euskal izenak. Euskaltzaindiak, J.M. Satrustegiren lan neketsuen esker, bilduak eta argitaratuak. Aukera egitekotan zalantzarik gabe, horien artean egin beharko geneke jaio berriei ipintzeko izenaren aukera.

Hala ere, izendegi hori ez da osoa. Saildutegiko beste izen asko falta dira hor, Euskal Herrian usu erabili izan ez arren, kanpoko pertsonaia aipatzeko edo eta kanpoko usuarioengatik gure artean zabaldu direnak euskaratzeko ezin beharrezkoagoak.

Azal dezagun, dena den, berau. Gaur egun ez du inork ukatuko **Ricardo** izena espainola denik baina izen germaniko hori Penintsulara oraintsatu etorria da, duela mende pare bat edo. Erdara zaharrean ez da inoiz **Ricardorik** azaltzen. Ingalaterran, ordea, franko ziren aintzinatik **Richard** izenaz eza gutuak. Hori dela eta, espainolez **Pérez, Martínez, Sánchez, Rodríguez, López, Domínguez** eta antzekoen artean ez da behin ere **Ricardez** modukorik azaltzen, ez eta **Eduardez, Alfredez, Cirilez** edo **Vladimirez** ere, deiturak sortu zireneko garaian ezezagunak eta ezerabiliak zirelako seinalea berau. Baina beste nazioetan, ordea, **Richardson, Edwanson, Alfredson, Krilov, Kirilovitz, Vladimirovitch** modukoak normalak dira.

Horrek ez du esan nahi, jakina, **Ricardo, Eduardo, Alfredo, Cirilo** edo **Vladimiro**, zaharrak izan ez arren, **gaur** erdal izenak ez direnik. Gehiago edo gutiago erabiliak izatea besterik da, baina gutxienez erdal saildutegian aukeran daude. Horietako batzu oraingo pertsonak adierazteko erabiltzen ez badira ere, posible da, hala ere, atzerritar pertsonaia aipatzeko usatzea: **Los santos Cirilo y Metodio evangelizaron a los eslavos, el príncipe Vladimiro pasó con sus tropas los Urales**, etc.

Euskaraz, ordea, gure hizkuntzaren orain arteko ofizialtasunik ezaz, ez dugu, serioski bederen horrelako izen egokitasunik egin eta on litzateke. Euskaltzaindiak berak, honetaz, oraingo nahastea behin betiko garbitzeko, lehenbailehen bere hitz ematea.

## ARANA-ELIZALDEREN IZENDEGIA

Aipaturiko premiaz konturaturik, beren garaian **Sabino Aran** eta **Luis Elizalde** izendegi bat modu zuten euskaraz, Europako hizkuntza guztietatik zeuden izenak euskaraz nola edo hala ezarri. Dena darik gabe, hura txalogarria izan zen, baina egia ere ba da, orduko euskal estudioen egoeran, eta zegoen garbizalekeri giroan, ez zutela beti ongi asmatu.

maiz hitzak apriorismoz eta erizpide okerrez eraturik. Maskulinorako a eta femeninorako e bukaerak uztea ez da, izan gaitezen serioak!, zuzena, are gutiago, oinharrian, Astarloak aipatzen zituen haur nigarren arrazonaketak zeudela jakinik.

Bai Azkuek eta bai Sebero Altubek kritika zorrotzak egin zizkioten izendegi horri, funtsean zekarren borondate onaz aparte, haren alde okerrak salhatuz.



**Erdal izenak euskaraz jartzea absurdua gerta daiteke.**

Haien bidetik, nik neuk, beste puntu batzu agertu nahi nituzke bertan:

1) Izendegi horretan ez dira kontutan hartu gure Herriaren usuario historiko jatorreko izenak (Peru, Manu, Anton, Bladi, Salvatore, Bernat, Jakue, Eneko, Joanes, Josepe, Mari, Joana, Begoña...), horien lekuan laborategiko izen sustraitu gabeak sortuz (Kepa, Imanol, Andoni, Balasi, Gaizka, Bernarta, Jagoba, Iñaki, Jon, Joseba, Miren, Jone, Begoñe...), Duten historikotasunik ezaz, irrigarriak gertatzen dira, faltsuak erabat, aurreko mendeetako euskal pertsonaiak izendatzeko: Kepa Axular, Jon Leizarraga, Nafarroako Pantzeska Txaber, Jone Albreteko erregina, bai eta lehen eta oraingo kantopar pertsonaiak aipatzeko ere: Josu gure salbatzailea, Done Jagobarako bidea, Kistobal Colombo, Done Bonipagi, Lukertze Borgia, Godepirda Bouillonekoa, Koldobika XIVa Frantziako errege, Karla Bianakoa, Joseba Stalin, Dugen Greziakoa (= Diogenes!), Lopolda Belgikako erregea, Albon-tsa XIII Bourbonekoa, Adolba Hitler...

Ez da harrizkoa, beraz, Elizak berak —bataiorako onhartu arren— gero liturgian ofizialki ez erabiltzea. Eta honek, noski, erabateko absurdu bategara garamatza, hots, Done Kepa edo zeruko go-tonak euskara liturgikoan ezer ez diren bitartean,

izenok, hala ere, egiaz existitu ez existitzen diren erlijio pertsonaia batzurenak direlako atxakiaz, pertsonentzat onhartzera. Adar jotze hutsa da berau.

2) Phonetika aldetik, bukaerazko a eta e horien seriotasunik ezaz gainera, beste abusu nabari bat agertzen zaigu f phonema baztertzear. Okerrera, hala ere, izenen historikotasunaz egiten den abstrakzioa da: izen guztiak tratatzen dira euskaraz aspaldidanik erabiliak izan balira bezala, bakoitzaren sarrera eta erabilera historiko egiazkoa noizdanikoa den kontsideratu gabe. X mendeko euskaldunek Klodovik izena hartu balute nola bilakatuko zuketentz asmatzea ukhronia hutsa da, sekula gertatu ez zen arazo baten inguruan alferrik espekulatzea. Hortik izendegiaren irrealismoa.

Hizkuntza guztietan, guti erabilitako izenen forma nazionala, ia-ia latinezko formaren egokitze zuzena da, ahalik eta gutien aldatua, herriaren usariorik ezari dagokion kultismoa hategia. Euskaraz ere beste horrenbeste egin beharra zegoen.

3) Beste akats bat, enetzat larriena, Gaztelapeko morrontza da, hots, funtsezko erdaltasuna. Irakurleari inolako azalpenik eman gabe, hor euskaraz sekula erabili izan ez diren izenak, euskal itxuraz maskaturik, azaltzen dira zenbait izen tradizioidunen parean, batak besteak bezain jatorrak bailiren.

Euskal literatura, kasu, ez da Lope de Vega eta beste erdal autoreen obra, euskaraz itzulita egon arren, gure Herriko idazleen euskarazko lan originalak baizik. Modu berean, euskal izenak ez dira, ezin dira izan, gaztelau kultur eta usuariozkoak, euskaraz jarrita egonagatik. Hori antierdal kultura litzateke, besteen klitxet negatiboa, sekula ez euskal bide propioa.



**Leire: Erlijiozko toponymiak euskal izen berri ugari eskaini dizkigu.**

Jar dezagun baina, zenbait esenplu. Frantzian, Ingalaterran, Alemanian ado Italian Jesus nola den galdetuz gero, Jesus edo Gesu erantzungo ligukete, baina hauxe azalduz: izen hori, errespetuagatik -espainolez Dios edo Cristo bezalaxe- ez dela behin ere oraingo pertson ei esateko erabiltzen, Buddha, Jupiter, Allah edo Manitu-rekin gertatzen den legez. Ingalaterran elurraren izena snow da, eta Fran-

tzian **neige**, baina, hala ere, nazio biotan, espainolez, ama birjina baten oroitzapenez, Nieves andre izena egon arren, ez dute **Lady Snow** edo eta **Madame Neige** gisakorik. Euskaraz dagoen Edurne horrek espainolpean dugun kultur morrontza besterik ez du adierazten. Arrazoi berberagatik, noski, **Dolores** izen espainola **Nekane** itzuli dugu, frantsez, aldiz, **Mme. Douleur** ez dagoelarik. Gaztelaeuk gure **Arantzazu "Espinal"** itzultzea barregarria biltz, ez dira gutiagorako guk egindako astakeriak.

Morrontza honen iturria, gure erdaltasun kulturala da. Etxeko batek **Dolores, Luis, Nieves** edo **Soledad** izena duelako, eta izen hori, espainol usario eta fonetikaz atsegin dugulako, geure seme-alabei ipintzeko joera dugu: "**¿Cómo se dice Soledad en vasco?**" galdera absurdua eginez. Bide horretatik, funtsean, euskaraz maskaraturik azaldu arren, guk gaztelauen usariozko izenak ipintzen dihardugu eta ez euskal tradiziokorik. Erdal kultura itzulia besterik ez da gurea horrela.

Edozein Herri eta kultura normaletan izenak barrutik begira hautatzen dira. Frantses batek, bere haurrari izena jartzean, ez du behin ere aztertzen izen hori espainolez edo turkoz nola den. Belarri-rako atsegina izatea, hots, estetika kontua izaten da arrazoirik inportanteena. Ba da sasoi horretaz kontura gaitezen eta euskal izenak, berezko itxuragatik eta ez erdarazkoen funtzioan aukeratzen hasteko.

4) Aurretik esandakotik beste arazo bat dator, hots, izen askoren maskulino eta femeninoa nola egin. Espainolez, bai, ohitura handia dago **Jesús/Jesusa, Tomás/Tomasa, Pedro/Petra**, eta gisa honetako bikoterik egiteko, baina Europako hizkuntza gehienetan hori **Jupiter/Jupitera, Venus/Venu-**

tekeena, izendegiaren mugapena bera da. Edo Haroan Elizak askatasun haundi uzten zuen bakoitzak nahiago zuen izena jartzeko, sailduena izateko zein izan ez. Geroago, baina, sailduenak gomendatzen hasi zen, azkenean, praktikan behintzat Herri izen nazional bereziak ia erabat baztertzeko.

Espainian Estatuak, konfesionala den aldeetik, Elizako sailduen izenak onhartu ditu eskuharkatzen izen laikoak galerazi eta baztertu. Azken urteotan, hala ere, bere lehengo hertsikeria eta klerikalismoa bertatik irtetzen ari da, baina izen laikoak onhartzeko berorien dokumentapen zaharra eskatzen du. Alde horretatik, euskarazko izen ezkristauak (**Enke, Andere, Haritz, Bihotz,...**) onhartzeko, baina hori bai, aintzina erabiliak izatekotan. Izen hori ordea, jatorriz, komunak izaten ziren eta ez da gabi ikusten zergatik euskaldun zaharrek egin zuten egiteko eskubide berbera ez zaigu oraingooi onhartzeko. **Haritz** baldin badago, kasu, zergatik ezin erabili daitezke, demagun, **Urki, Lizar, Sahats, Gisats, Gorosti, Otalore, Lilia, Izarra, Harri, Haitz, Iturri, Eguzki, Hilargi, Hibai, Haizea, Udaberri, Geroa, Garoa, Ihintza, Ametsa, Irrintzi, Txertoa, Ekintza...** etab? Herri askotan, Israelen eta Sovietar Batasunean, kasu, eskubide pertsonal eta demokratiko hori onhartua da. Horretan ni neu **Alfontso Irigoien** jaunarekin erabat konforme nago. Erromatar eta grekoei onhartzeko zaien eskubidea, izen itzulpen libreak egiteko halesia, guri ere onhartu behar zaigu. Bestetik, Estatu laiko batek ezin ditzake guk ko izenak bazter, Amabirjinen toponymi izenak, oraintsu arte pertsona izentzat erabiliak izan ez direnak, kristau kutsukoak direlako, onhartzeko dituen artean. Bai batzuek eta bai besteek eskubide berbera dute errespetatuak izateko.



**Haritz, Urki, Gorosti, Ira... Naturak ere pertsonentzako izen berri asko ema ditzake.**

**so, Edurne/Edurno, Leire/Leiro** egitea bezain irri-garri eta ez ohitua da. Izan batzu, eksklusibaz, maskulinoak dira beste batzu, aldiz, femeninoak soil-soilki. Hau ongi kontutan hartzekoa da.

5) Beste puntu bat, egileen bizkar ezin jar dai-

Jarriko nituzkeen muga bakarrak hauk lirateke: a) izenok euskara aldetik zuzenak, hots, ongi jarriak izatea, eta b) giza duintasunaren kontrakoak ez izatea **Mokordo, Jandalo, Kakusain** eta hola-koak, noski, onhartzinak lirateke.

Problema bat sor liteke, maskulino eta femeni-  
noak bereizteko. Gogora dezagun euskaraz hitzek  
ez dutela berez generorik. Hori konpontzeko, nik  
uste, J.M. Satrustegik behiala proposatua onhar  
liteke, hots, hitz biluzia maskulinorako utzi eta  
femeninorako, ordea, a organikodunak eta artiku-  
ludunak geratzea. Horrela, -Urki, Lizar, Sahats, Izar  
eta Hibai, kasu, gizonaekoentzat liratekeen artean,  
Urkia, Lizarra, Sahatsa, Izarra eta Hibaia andraz-  
koentzat geldituko. A bukaerak, puristek diotena  
diotela, femenino kutsu haundia du euskaraz, eta  
herri belarriak nik uste, erraz onhartuko luke be-  
reziketa hau.



Mendeetan zehar izenen modak aldatu egin dira.

## KANPOTIKO IZENEN EUSKARAPENA

Izenak moda eta ohitura aldakorren arauera  
egoten dira neurri haundi batez. Horregatik sartu  
ziren, mende ezberdinetan, beste hizkuntzetatiko  
zenbait izen. Moda berriren arauera, hortaz, ba  
dirudi aspaldion izen germaniko batzu, (Rikardo,  
Ernesto, Eduardo...) gure artera gero eta gehiago  
erabiltzeko joera egon dela. Berauetarako euskal  
forma finkatu bat erabakitzea, beraz, beharrezkoa  
dugu. Hala ere, izenok erabiliak izateko, jendeari  
etorkia azaldu behar diogu, eta zergatiak ere bai,  
gero nahi badu, erabil ditzan. Bestela, euskal itxu-  
raz arropatu ditugulako, euskal izen jatortzat ema-  
tea adulterazio kultural hutsa besterik ez genuke  
eginen, eta jokabide honen azken gehiegikeriak  
Onintze (sic)-Buenrocío, Abene (sic) Pilar eta  
Eztizen Dulcenombre ditugu, Sabinoren lepora  
ezin bota daitezkeenak, hain zuzen.

Edozeinek du nahiago duena aukeratzeko eskubi-  
dea, noski, baina, hori euskara izanen bada, ez da  
aski erdara ez bezalakoa izatea, gure hizkuntzaren  
egiazko eta oinarrizko legeak betetzea baizik. Eus-

kaltzaindiak eman beharko lituzke, hortaz, bere  
argibide eta ereduak. Aukera, bestetik, ez da libre  
izanen azalpenik gabe. Gauzen iturriak ezagutu on-  
doren bakoitzak nahiago duenetik edan beza, baina  
jakin gainean.



J. M. Satrustegik izen jatorrak biltzean lan on bat  
egin zigun guztioi.

Esandakoaren arauera, eta nire aurrekoek beste  
horrenbeste egiteko eduki duten eskubide berberaz  
baliatuz, izendegi baten proposamena agertzen dut  
hemen, Euskaltzaindiak ikus, azter, juzka eta osa  
dezan. Hau ere ez da osoa. Gure artean gehien en-  
tzuten diren izenak dauzka, soilki, baina, gutie-  
nez, moldatzeko bide eta erregelak praktikoki era-  
kusteko balio dezake.

Hastapenez, greko, latin, germaniar edo eslaviar  
etymoak kontutan hartu izan dira, eta euskararen  
gaurko lege fonetikoaren arauera moldatu, baina in-  
guruko hizkuntzetan nola diren ere bistatik galdu  
gabe.


Emakumezkoen izenetan, tradizionalki bezala,  
a bukaera utzi da (Joana, Josepa, Milia...) Izen ger-  
maniko sartu berrien kasu batzutan hasierako r-a  
bere horretan gorde da: Rikardo, Roberto...

## IZENOK ERABILTZEKO ZENBAIT ERREGELA

Izenok, derragun berriro argi eta garbi, gure He-  
rriaren oinarrizko izendegi jatorra tradizio gabeko  
izen modernoek osatzeko moldatu eta egokituak  
dira, eta erdaraz izen kide bat dutenentzat apro-  
sak gertatu arren, ez genituzke gomendatuko haur  
jaio berriei ipintzeko. Aitzitik, berauentzat hobes-  
tekoak dira, nik uste, izen zaharrak (Eneko, Oier,  
Unai, Iratxe...) edo eta izen komun egokituak  
(Irail, Oreina, Harri, Ihintza...)

Izenok europar tradizio handikoen fonetik  
moldapenak dira, inoiz, ordea, itzuliak izan arren.  
Itzulpenek, ordea, arrisku bat dute, eta ez ttikia, ja-  
torria desitxuratzekoa. Montserrat, Lourdes edo

Ainara ere, posible litzateke erdarara itzultzea, baina zentzu komunaren arauera hori egitea absurdua litzatekeen arrazoi berberetatik ez dirudi espainolezko Dolores, Sagrario, Soledad, Covadonga, Guadalupe eta antzekoak euskaratzea oso zentzuzkoa denik.



Zenbait izendegi oraindik argitaratzea anakhronismo hutsa da, eta kultura gabeko jendearentzat kaltegarria gainera.

Atzerritar pertsona izenak idaztean, hobe da, jakinez gero, beraien jatorrizko orthographiaz uztea: Adolf Hitler (ez Adolfo), Karl Marx (ez Karol), Franciso Franco (ez Frantzisko), Fedor Dostoiesky (ez Teodor), Mika Waltari (ez Mikel). Jatorriz nola diren ez dakigunean, baina, zerrenda horretako ez baliatzea zilegi litzateke: Leopoldo

Belgikako erregea, Anton Txekhov, Lehoi Tolstoi, Hendriko IV...

Inolako tradizioz ez duten izenetan ez da deus aldatu behar: Indira, Rabindranath, Mordokhai, Vakhtang, Otto, Mao, Muhamed... nahiz eta itzulpena izan: Habib (= Maite), Arieh (= Lehoi) arrazoi berberetatik, Madrileko Nieves Pérez ez da Edurne Pérez gisa itzuli behar euskarara.

## IZEN-DEITURAK EUSKARAZ JARTZEKO MODUA

Euskaraz lehenik izena eta gero deitura ezarri izan dira beti: Antton Urtiaga, Itziar Otaegi... Aintzinan oso ohitura zabaldua zen deiturari -ko (inoiz -koa ere bai) gehitzea: Mikel Bengoetxeko, Peru Errekaldeko, Bernat Etxaparekoa... Usuario hau, nahi izanez gero, birbiz liteke, -eta amaiera moztua duten deituretarako agian egokia izanik: Harrietako, Zumetako, Olañetako, Zabaletako...

Ez da usuario jatorra, baina, euskaraz -tar izen-deiturekin erabiltzea, oraintsuko asmakeria baizik. Egia da, noski, -tar senidetasuna adierazteko erabiltzen dela, baina Armendariztar Josepe modukoak ez ditu gure Herriak inoiz tradizionalki erabili. Are kritikagarriagoa da, gainera, batzuren deismoa, hots, euskal deituren aurrean erdazko de jartzea, absurdua baita espainolezko preposizio batez gure deiturei beren jatorritasun edo "noblezia" gehitu nahi izatea,

## AZKEN OHARRA

Ondoren datoezen izenen artean, letra beltzez direnak aintzinako euskal forma jatorrak dira, erra- ran hitz sustraikideak dituztenak.

## ANDRAZKOEN IZENAK

Adela: Adela  
Adelarda: Adelarda  
Adriana: Adriana  
Africa: Afrika  
Agueda: Ageda, Agate  
Agustina: Agustina  
Albina: Albina  
Alejandra: Alexandra  
Alfonsa: Alfontsa  
Alodia: Alodia  
Amadora: Maite, Amadora  
Amanda: Amanda  
Ambrosia: Ambrosia  
Ana: Ana  
Anastasia: Anastasia  
Andresa: Andresa  
Angelina: Angelina  
Anselma: Antselma  
Antera: Antera  
Antonia: Antoni(a)  
Antonina: Antonina

Augusta: Augusta  
Aureliana: Aureliana  
Avelina: Abelina  
Bárbara: Barbara  
Beatriz: Beatrice  
Benita: Benita  
Calixta: Kalixta  
Caridad: Karitate  
Carina: Karina  
Carlota: Karolina  
Carmen: Karmen, Karmele  
Casilda: Kasilda  
Catalina: Katalin  
Ceferina: Zeferina  
Celsa: Zeltsa  
Clara: Argia  
Claudia: Klaudia  
Clotilde: Klotilde  
Concepción: Sortze, Kontxesi  
Cornelia: Kornelia  
Crisanta: Krisanta  
Cristina: Kristina

Delfina: Delfina  
Demetria: Demetria  
Dionisia: Dionisia, Dunisia  
Eladia: Eladia  
Elena: Helena  
Elisa: Elisa  
Eloisa: Eloisa  
Elvira: Elbira  
Emilia: Milia  
Emiliana: Emiliana  
Engracia: Engrazi(a)  
Enriqueta: Hendriketa  
Escolástica: Eskolastika  
Esperanza: Esperantza, Itxaropona  
Estrella: Izarra  
Eugenia: Eugenia  
Eulalia: Eulalia  
Eulogia: Eulogia  
Eusebia: Eusebia  
Eustaquia: Eustakia

Eva: Eva  
 Evarista: Ebarista  
 Faustina: Faustina  
 Fausta: Fausta  
 Fe: Fede  
 Felician: Feliziana  
 Felipa: Filipa, Felipa  
 Felisa: Felisa  
 Fermina: Fermina  
 Florencia: Florentzia  
 Florentina: Florentina  
 Fortunata: Fortunata  
 Francisca: Frantziska, **Pantxike**  
 Gabina: Gabina  
 Gabriela: Gabriela  
 Gala: Gala  
 Genara: Genara  
 Genoveva: **Genobeba**  
 Gertrudis: Gertrudis  
 Gloria: Gloria, Loria  
 Gracia: Grazia, **Garazi(a)**  
 Graciana: Graziana  
 Graciösa: Graziosa, **Gaxuxa**  
 Gregoria: **Gregori(a)**  
 Guadalupe: Guadalupe  
 Guillermina: **Gilena**, Gilermina  
 Herminia: Herminia  
 Hilaria: Hilaria  
 Hipólita: Hipolite  
 Honorata: Honorata  
 Humildad: Apaitasuna  
 Ignacia: **Inazi(a)**  
 Iluminada: Argitsu  
 Irene: Irene  
 Isabel: Elisabete  
 Isidora: Isidora  
 Isidra: Isidra  
 Jacinta: Hiazinta, Jazinta

Joaquina: Joakima, Joakina  
 Jordana: **Jurdana**  
 Josefa: **Josepa**  
 Juana: **Joana**  
 Julia: Julia  
 Juliana: Juliana  
 Lenina: Lenina  
 Leocadia: Leokadia  
 Leona: Lehoia  
 Leonor: Leonor(e)  
 Lina: Lina  
 Lorenza: Laurentia, Lorentza  
 Lourdes: Lourdes  
 Lucila: Luzila  
 Lucrecia: Lukrezia  
 Luisa: Luisa  
 Luz: **Argia**  
 Magdalena: Madalen  
 Mar: Itsaso  
 Marcela: Martzela  
 Marcelina: Martzelina  
 Margarita: Margarita  
 Maria: **Mari**  
 Marta: Marta  
 Matilde: Matilde  
 Mauricia: Maurizia  
 Maximina: Maximina  
 Melchora: Meltxora  
 Mercedes: Mesede  
 Micaela: **Mikela**  
 Milagros: Mirari  
 Misericordia: Urriki  
 Modesta: Apala, Modesta  
 Mónica: Monika  
 Monserrat: Monserrat  
 Natalia: Natalia  
 Nemesia: Nemesia  
 Nieves: Edurne, Elurra  
 Ninfa: Ninfa  
 Olegaria: Olegaria  
 Orosia: Orosia

Paciencia: Eroapen, Pazientzia  
 Paloma: **Usoa**  
 Pancracia: Pankrazia  
 Patricia: Patrizia  
 Paula: Paula  
 Paz: Bake(a)  
 Piedad: Pietate, Urriki  
 Pilar: Pilare  
 Pía: Pia  
 Plácida: Plazida  
 Prudencia: Prudentzia,  
 Zuhurtasun(a)  
 Regina: Erregina  
 Rictrudis: Riktrudis  
 Romana: Erromana  
 Rosa: Arroza  
 Rosalía: Erroxali  
 Rosario: Arrosari(o)  
 Ruth: Ruth  
 Sabina: Sabina  
 Sacramento: Sakramentu  
 Salomé: Salome  
 Salustiana: Salustiana  
 Sebastiana: Sebastiana  
 Saturnina: Saturnina  
 Simona: Simona  
 Socorro: Laguntza  
 Sofía: Sofia  
 Susana: Susana, Xuxana  
 Teófila: Teofila  
 Teresa: Teresa  
 Timotea: Timotea  
 Tomasa: Tomasa  
 Trinidad: Trinitate, Hirutasun(a)  
 Valentina: Balentina  
 Valeriana: Baleriana  
 Venancia: Benantzia  
 Verdad: Egia  
 Vicenta: Bizenta  
 Victoria: Garaitia, Biktori(a)  
 Victoriana: Biktoniana

## GIZONEZKOEN IZENAK

Aarón: Aaron  
 Abraham: Abraham  
 Adolfo: Adolfo  
 Adrián: Adrian  
 Agapito: Agapito  
 Agustín: Augustin, **Agosti**  
 Alberto: Alberto  
 Albino: Albin(o)  
 Alejandro: Alexandro  
 Alfonso: Alfontso  
 Alfredo: Alfredo  
 Amado: Maite, Amado  
 Amando: Amando  
 Ambrosio: Anbrosi(o)  
 Anastasio: Anastasi(o)  
 Andrés: Andres  
 Angel: Aingeru  
 Anselmo: Antselmo  
 Antero: Anter(o)  
 Antolín: **Antolin**, Andolin

Antonio: **Anton**  
 Antonino: Antonin(o)  
 Augusto: Augusto  
 Aureliano: Aurelian(o)  
 Avelino: Abelin(o)  
 Bartolomé: Bartolome  
 Basilio: Basili(o)  
 Bautista: Bautista, Batista  
 Benedicto: Benedikto  
 Benjamín: Benjamin  
 Bernabé: Bernabe  
 Bernardo: **Bernat**  
 Blas: **Bladi**  
 Braulio: Brauli(o)  
 Bruno: Bruno  
 Calixto: Kalixto  
 Cándido: Kandido  
 Canuto: Kanuto(o)  
 Carlos: Karol  
 Carmelo: Karmelo

Casiano: Kasian(o)  
 Casimiro: Kasimir(o)  
 Cástor: Kastor  
 Cecilio: Zezili(o)  
 Ceferino: Zeferin(o)  
 Celedonio: **Zeledon**  
 Celso: Zeltso  
 César: Kesar  
 Cipriano: Ziprian(o)  
 Ciriaco: Ziriako  
 Cirilo: Kiril, Ziril(o)  
 Claudio: Klaudi(o)  
 Clemente: **K(e)lemente**  
 Conrado: Kondrado  
 Constantino: Konstantin(o)  
 Cornelio: Korneli(o)  
 Cosme: Kosme  
 Crisanto: Krisanto  
 Crisógono: Krisogono  
 Crisóstomo: Krisostomo

Crispín: Krispin  
 Cristóbal: Kristobal, Kristofor(o)  
 Cruz: Gurutz  
 Dámaso: Damaso  
 Damián: Damian  
 Daniel: Daniel  
 David: David, **Davit**  
 Delfín: Delfin  
 Demetrio: Demetri(o)  
 Dídimio: Didimo  
 Diego: Didako  
 Dimas: Dimas  
 Dionisio: Dionisi(o), **Dunisi(o)**  
 Domingo: **Domiku**  
 Donato: Donato  
 Edmundo: Edmundo  
 Eduardo: Eduardo, Edoardo  
 Efrén: Efraim  
 Eladio: Eladi(o)  
 Elías: Elias  
 Eliseo: Eliseo  
 Eloy: Eloi  
 Emiliano: Emilian(o)  
 Emilio: Emili(o)  
 Enrique: **Hendrike, Hendriko**  
 Erasmo: Erasmo  
 Ernesto: Ernesto  
 Escolástico: Eskolastiko  
 Estanislao: Estanislao  
 Esteban: **Eztebe**  
 Eugenio: Eugeni(o)  
 Eulalio: Eulali(o)  
 Eustaquio: Eustaki(o)  
 Evaristo: Ebaristo  
 Ezequiel: Ezeziel  
 Facundo: Fakundo  
 Faustino: Faustin(o)  
 Fausto: Fausto  
 Federico: Federiko, Frederiko  
 Feliciano: Felizian(o)  
 Felicísimo: Felizisimo  
 Felipe: Filipe, Felipe  
 Félix: **Heritz, Eritz**  
 Fermín: Fermin  
 Fernando: Fernan (do), **Errando**  
 Fidel: Fidel  
 Florençio: Florentzi(o)  
 Florentino: Florentin(o)  
 Fortunato: Fortunato  
 Francisco: Frantzisko, **Patxi**  
 Gabino: Gabin(o)  
 Gabriel: Gabriel  
 Gaspar: **Kaspar**, Gaspar  
 Genaro: Genar(o)  
 Gervasio: Gerbasio(o)  
 Godofredo: Godofredo  
 Gonzalo: Gontzal(o)  
 Graciano: **Gehexan**, Grazian(o)  
 Gregorio: Gergor(io), Gorgori  
 Guillermo: **Gilen**  
 Gumersindo: Gumersindo  
 Heliodoro: Heliodor(o)  
 Heriberto: Heriberto  
 Hermán: Herman  
 Hermógenes: Hermogenes

Higinio: Higini(o)  
 Hilario: Hilari(o)  
 Hipólito: Hipolito  
 Honorato: Honorato  
 Hugo: Hugo  
 Humberto: Hunberto  
 Ignacio: **Inazio**, Iñaki  
 Ildefonso: Ildefontso  
 Inocencio: Inozentzi(o)  
 Iñigo: **Eneko**  
 Isaac: Isaak  
 Isaías: Isaías  
 Isidoro: Isidor(o)  
 Isidro: Isidro  
 Ivón: **Ibon**  
 Jacinto: Hiazinto, Jazinto  
 Javier: **Xabier**  
 Jeremias: Hieremias  
 Jerónimo: Hieronimo  
 Jesús: Jesus  
 Joaquín: Joakim, Joakin  
 Job: Job  
 Joel: Joel  
 Jorge: **Jurgi**  
 José: **Josepe**  
 Juan: **Joanes, Ibane, Joan**  
 Julián: Julian  
 Julio: Juli(o)  
 Laureano: Laurean(o)  
 Lázaro: Lazaro  
 Leandro: Leandro  
 León: Lehoi  
 Leonardo: Leonardo  
 Leoncio: Leontzi(o)  
 Leopoldo: Leopoldo  
 Leovigildo: Leovigildo  
 Lesmes: Lesmes  
 Lino: Lino  
 Lope: **Lope**  
 Lorenzo: **Laurenti, Lorentzo**  
 Lucas: Lukas  
 Luis: Luis, Koldo  
 Manuel: **Manu(el)**, Imanol  
 Marcelino: Martzelin(o)  
 Marcelo: Martzel  
 Marcial: Martzial  
 Marcos: Marko, **Marki**  
 Mariano: Mariano  
 Martín: **Martin**  
 Mateo: Mateo  
 Matías: Matias  
 Mauricio: Maurizi(o)  
 Maximino: Maximin(o)  
 Melchor: Meltxor  
 Metodio: Metodi(o)  
 Miguel: **Mikel, Mitxel**  
 Modesto: Apal, Modesto  
 Moisés: Moise(s)  
 Narciso: Narkiso  
 Nazario: Nazari(o)  
 Nemesio: Nemesi(o)  
 Nicolás: **Mikola(s), Nikola(s)**  
 Norberto: Norberto  
 Octavio: Oktabi(o)  
 Odón: Odon, Oto(n)

Olegario: Olegari(o)  
 Oscar: Oskar  
 Pablo: **Paulo**  
 Pancracio: Pankrazi(o)  
 Pascual: **Bazkoare**  
 Pastor: Unai  
 Patricio: Patri, Patrizi(o)  
 Pedro: **Peru, Harri, Haitz, Betiri**  
 Pío: Pi(o)  
 Plácido: Plazido  
 Policarpo: Polikarpo  
 Pompeyo: Ponpei(o)  
 Próspero: Prosper(o)  
 Prudencio: Prudentzi(o)  
 Rafael: Rafael  
 Raimundo: Raimundo  
 Ramiro: Ramir(o)  
 Ramón: **Erramon**, Erramun  
 Ricardo: Rikardo  
 Roberto: Roberto  
 Rodolfo: Rodolfo  
 Rodrigo: **Edrigo, Roderiko**  
 Roldán: Errolan  
 Román: Erroman  
 Rómulo: Romulo  
 Roque: **Erroke, Droke**  
 Rufino: **Urrufino**  
 Ruperto: Ruperto  
 Sabino: Sabin(o)  
 Salvador: **Salbatore**  
 Salustiano: Salustian(o)  
 Samuel: Samuel  
 Sancho: **Antso, Santxo**  
 Santiago: **Jakue**  
 Saturnino: Saturnin(o)  
 Sebastián: Sebastian  
 Sebero: Seber(o)  
 Simón: Simon, Simun  
 Sixto: Sixto  
 Sotero: Soter(o)  
 Tadeo: Tadeo  
 Telesforo: Telesfor(o)  
 Teobaldo: Tibalt  
 Teodomiro: Teodomir(o)  
 Teodoro: Teodor(o)  
 Teodosio: Teodosi(o)  
 Teófilo: Teofilo  
 Terencio: Terentzi(o)  
 Timoteo: Timoteo  
 Tito: Tito  
 Tobías: Tobias  
 Tolomeo: Ptolomeo  
 Tomás: Tomas  
 Toribio: Toribi(o)  
 Trifón: Trifon  
 Valentín: Balentin  
 Valeriano: Balerian(o)  
 Valerio: Baleri(o)  
 Venancio: Benantzi(o)  
 Vicente: **Bikandi, Mikeldi**  
 Víctor: Biktor  
 Victoriano: Biktorian(o)  
 Vidal: Bidal  
 Vladimiro: Vladimir  
 Zacarías: Zakari(as)



# MEDIKUNTZA SENDATZAILEA (eta II)



*Basurtuko ospitalea. Arratoiz beterik omen dago*

Aurreko zenbaki batetan ikusi genuenez, medikuntza sendatzailea ondoko lau maila hauetan burutzen da: 1.- Medikuntza generaleko edo oheburuko medikuen bidez. 2.- Mediku berezitzuez. 3.- Urgentzi medikuez. 4.- Ospitaleen bidez. Artikulu hartan lehen bi mailak aztertu genituen, eta oraingo honetan, gaiari nolabait amaiera emateko, azken biei buruz zerbait idaztea pentsatu dut.

Bizkaia osorako sei urgentzi zentru nagusi baino ez dago.

1.- Lehena Deustukoa dago. Honek bere menpean beste lau subzentru ditu: a) Sestaokoa b) Aretakoa c) Deustukoa d) eta Basaurikoa. Deustuko zentral ikaragarri honek Bilbo eta bere inguru guztiak hartzen ditu, Somorrostro, Zamudio eta Zeberio bere laneremuan egonez. Honela, adibidez, Zeberio edo Zamudioko batek —hain urrun egon arren— zerbitzu honen laguntza behar badute, telefonoz deitu beharko dute, Deustuko 436 76 00 delakora hain zuzen ere. Telefono-zentralean, deiak egiten diren arauera ordenatzen dira, dei bakoitzari numero bat emanez. Gero deia subzentrurik hurbilenera pasatzen da (Zeberiotik baletor, Basauri-

## URGENTZIAZKO MEDIKUNTZA

Arratsaldeko bostak jo bezain laster, oheburuko medikuen betebeharra amaitu egiten da eta urgentzi medikuen hasi. Hau —ordutegi hau halegia— ez da horrela izaten herri eta estatu guztietan, urgentziako medikuntz zerbitzua daudenetan soilik baizik; beste tokietan, oheburuko medikuen eskuetan egoten da eguneko hogeitau lau orduetako sanital lana eta erantzukizuna.

Nola dago, baina antolaturik medikuntz maila hau eta nolako medikuntza egiten da bertan? Bada, laburki esanez, ezin kaxkarragoa. Ezer zentraldurik badago eta frustratzailea bada, hauxe bai ba dela!



*Itxurak gorabehera, ez dira benetako eriautoak, ez baitaude horretarako ongi horniturik.*

kora, eta Zamudiotik baletor, Areetakora). Eta zor-terik dagoenentz itxaron behar.

Bizkaiko beste bost zentruak ondoko hauxek dira: 2) Zornotzakoa 3) Plentziakoa 4) Durangoakoa 5) Ermukoa 6) Gernikakoa.

Deustuko, Zornotzako eta Plentziako zentruetara heltzen diren deiei zerbitzua eramateko, irratitelefona duten auto batzuek erabiltzen dira, Auto horietan bi pertsona joaten dira: gidaria eta medikua. Dena den, itxurak gorabehera, auto hauek ez dira benetako eriautoak, ez baitaude ongi prestatu-rik eta horniturik emergentziei egokiro erantzuteko, zeren eta ez baitute ez oxigeno sistemarik ez eta beste zenbait urgentzi osagailurik. Izatez, irratitelefona duten automobil soilak baino ez dira. Durango, Ermua eta Gernikako zentruetara heltzen diren deiei, aldiz, mediku bakoitzak bere autoaren laguntzaz erantzun behar die.

Behin gaixoaren etxera helduz, eta kasuaren epai klinikoa egin ondoren, bi erabakiotako bat hartu behar da: edo etxean tratatu —osagarri batzuren bidez— edo ospitaldu. Azken hau erabakitzen bada, medikuak berak lor dezake ospitalera garraiatzeko eriauto bat, sarrera-txartela emanaz.

Ikusten duzuen legez, zentralduagorik ezin daiteke egon urgentzi zerbitzua; nola ote da antolatu, zeberiotar eta zamudiotarrek zentral berbera deitzeko beharra ukaitea? bezala. Lehenik, benetako urgentziak ongi formatu eta prestatu-rik medikuak eskatzen ditu, eta bigarrenik asistentzia tekniko minimo bat. Horregatik, ene ustez, kasu urgenteak ospitaletan asistitu behar dira, eria bera ospitale horretara ekarriz. Horretarako, jendearengandik hurbil behar lirakeke egon urgentzi postuak, eta eguneko 24 orduetan zabalik. Gainera, zerbitzu hertsia bezala antolatu-rik, honek zera esan nahi duela, medikuak ez lirakekeela bertatik irteten eta gaixo urgenteak bertara eraman beharko lirakekeela.

Idea hau burutzeko, bada, behin eta berriro ere Medikuntza ez-zentraldu baten beharra ikusten dugu: Ospitale ttikiz eginiko medikuntza, behar beharrezkoa dugu.

## OSPITALEAK

Urgentzi arloan txarto bagabiltza, beste ma- honetan ez gabiltza asko hobeto, ez horixe, zera eta eskualde edo probintzia bakoitzean ospitale g- tti baitugu. Gainera handiegiak dira neurritz, e- hiri handietan zentraldurik daude.

Gure lurraldean, gaur eguneko sanital anto- menduan bi muturren artean mugitzen gara, he- gia, edo ospitale ikaragarri handiak edo oheburu- medikuntza enpirikoa. Tartean ez dugu ia beste- ko posibilitaterik.


Beraz, baldintza hauek direla eta hainbat pro- ma pairatzen dugu. Bat, adibidez, desplazamendu- na da, hots, ospitaleko laguntza hartzeko jendea- kilometro asko egin behar dituela, osasunaren le- guntza garestituz eta zailduz. Ospitale handiak- beste aldetik, problema handiak dituzte, admini- tralgoan, janari arloan, asistentzigoan eta beste an- askotan isladatzen eta agertzen direlarik. Psikologi- aldetik, ospitaleak ez dira gehienetan ebazpideri- onena izaten, jendearengan kolpe psikologikoa, be- durra eta depresioa sartzen baitute. Ematen de- sanital laguntza eta asistentzia despertsonaltza- eta desgizatzaila ohi da, honek osasunarekin hain- beste ondorio kaltegarri dakarrelarik.

Dena den, ospitaleen funtzio nagusiak lau dira:

- 1) Laguntza edo asistentzia (hemen sartzen o- tugu medikuntza sendatzailea eta berrabi-



*Gurutzetako ospitalean jendea pasabidetan dago, ez baitago ohe nahikorik.*



*Lejoan egiten ari dira Bizkaiko ospitale berria*

pena).

- 2) Ikerkuntza (medikuntz arloan, noski).
- 3) Irakaskuntza (bere pertsonalari zuzendua esan nahi dut).
- 4) Herriari hezkunde sanitaria ematea.

Aspaldidanik, gure ospitaleek entzungor egiten diete helburu hauei. Kasu bat aipatzeagatik, ikerkuntz arlokoa aipatuko dut. Hemen ikerkuntzarik ia egiten ez denez, beste herrien atzetik ibili behar dugu beti, besteek lortzen dituzten eta berentzat on eta egoki izan daitezkeen aurrerakuntzak eta teknikak kopiatuz. Baina guretzat ere onuragarri ote dira, besterentzat onak diren gauzak? Bestalde, asistentzi mailan denok ezagutzen duzue, nolako problemak ditugun: Lekerik eza (sarritan ospitale-  
Bestalde, telefonoz ezin jakin daiteke erraz, benetako urgentzia zein den; pertsona batzu oso urduri egoten dira, eta horientzat edozer gauza izaten da urgentziatzkoa; beste pertsona batzu, lasaiago edo apalago izanik, ez dira ausartzen, laster etortzeko eskatzera. Orduan, egunero gertatzen den gauza bat, zera da, halegia, angina arrunt bategatik deitu duten etxera, lehenago joaten dela, bihotz infartu bategatik deitu dutenera baino. Eta hori horrela izanik, urgentzi zerbitzuaren lehen betebeharra ez da betetzen.

Oheburuko medikua desprestigiaturik badago, are gehiago urgentziatzkoa; askorentzat, asken hau zulo-tapatzaile bat baino ez da (arratsaldeko 5etatik goizeko 9etarako zuloa). Urgentzi medikua 5etatik goizeko hartzen da, txartoago formaturiko guttiagotzat hartzen da, gainera). Jende norbait legez (sarritan egia dena, gainera). Jende askoren eritziz, oheburuko medikuak eta berezi-tuak, oraindik zerbait ba dira, baina urgentziatz-koak, ez. Sarritan kontra jartzen zaie jendea hartzen dituzten erabakietan, eta mediko hauk dira Asegurantza Sozialaren aurkako gorroto gehienak jasaten dituztenak.

Mediku gisa ez dago lan frustratzaileagorik. Batetik, gaueko lana, medio teknikorik gabe egiten den medikuntza ete jende **agresibo** eta **haserrekorra** bezero bezala. Medikuntza ikasiz joan beharrean,

ahantzerik laguntzen duen lan erregarria.

Hau guztiau dela eta, lanpostu hauetan medikuek urte guttitan irauten dute, eta honela, mediku berri eta formazio guttikorekin edo lan moeta horren eske dabilzan medikurekin betetzen diren zerbitzuak dira sarri behintzat.

Bere aldetik, jendeak ere lan gehiegi ematen die mediku hauei, urgentziatzko ez diren gauzetarako laguntza eskatuz. Egiten diren deien 90 o/o-a ez ohi da benetan urgentziatzkoa, eta, egia esan, dei horik ez lirateke asistitu behar.

Ene ustez, urgentzi medikuntza ez da izan behar garraio sistema soil bat, hots, kontsulta mugikor eta ibilkor soil bat, gure herrian gertatzen den tako pasabidetan eman behar izaten zaio laguntza jendeari), gela desegoki edo zaharrak, kirofano kaxkarrak, pertsonale gutti, materiale falta ikaragarria, eta abar luzea. Ospitaleetan ez da inolako prebentzio kontzeptu berezirik erabiltzen edo eta oso gutti erabiltzen dira; elikadur dietak ezin dira ongi eraman, ez baitago dietetikazko departamenturik; garbitasun eta higiene problemak nonnahi agertzen dira; eta abar. Hala eta guztiz ere, oso ezaguna dugun Bilboko jauntxo bati, orain dela denbora gutti, "urrezko angula" bat erregalatu zioten, Basurtuko ospitalea ongi zaintzearen (arratoiz beterik dago, egia esan, baina tira...)

Gure ospitaleek ez dute inor promozionatzen. Ez dute interesik edo ez dute nahi, kontaktu batzuren bidez jendea kanpoko zentru berezituetera bidaltzea, gero etxera bihurtzean beste batzu formatzeko. Iraskuntzean hutsune ezin handiago dago. Salbuespen batzu kenduz, inork ez duela irakatsen esan dezakegu. Kasu klinikoak ez dira aztertzen, autopsia gutti egiten da, eta denok dakizue, hauk behar beharrezkoak direla ikasten aurrera joateko.

Bukatzeko, ospitaleak Herriari lepoa emanez bizi direla esan behar dugu, Herriak dituen problemai uko eta itsuarena eginez. Ez dira, ez, izan behar liratekeen bozgorailuak. Zoritxarrez mutu eta saldurik daude hauk ere.

P. Letamendi

# EUSKAL "GAY"AK, GHETTOAREN KONTRA

*Geure eguneroko munduan ba ditugu tabu diren gai batzu. Ukitu behar ez diren gai hauek murraila batez inguraturik egoten dira eta isiltasun orma apurtzea zaila izaten da. Gaur gai tabu horietako bat dakargu lerro hauetara. Homosexualitatea da, hain zuzen. Orain dela ale batzu euskal homosexual batzuk zenbait aldizkaritara bidali zuten gutuna argitaratu genuen eta, egun batzu barru, telefonoz deitu gintuzten, beren arazoak elkarrizketa bat izateko. Bilboko bar normal batetan gelditu ginen eta homo hauetako hiruk beren egoeraz hitz egin ziguten. Batek euskara dotoreaz, erdaraz besteak. Hona hemen beraien esandakoak.*

— Euskal Herriko homosexualak antolakunde bat egiten hasiak gara "Euskal Herriko Gay Askatasun Mugimendua". Nafarroan zerbait egin da arlo honetan baina ez oso serio. Kuriositate bezala, Nafarroako antolakundeak zeuden "gay" gehienek emakumeak zirela esango dizugu.

## - Zertarako antolakunde hau?

— Giza eskubideek guztiontzat izan behar dute. Homosexualok ere giza eskubideak ditugu. Gure sexualitatea gizonengantz bideratua baldin badago ez da gure errua. Hezkuntza errepresibo batek ba du zerikusirik gure egoera eta bizimodu honetan. Geure antolakunde honen bidez geure "ghetto" moduko bizi behar honen aurka jo nahi dugu eta, noski, hezkuntza sexual errepresibo baten aurka bide batez.

## - Zertan dago zuen helburu nagusia?

— Etorkizunean euskaldun guztiok egingo dugun Euskal Herri barruan gure eskubideak errespetatuak izatea nahi genuke. Orain geure bizitza anonimoa alde batetara uzten hasi baldin bagara helburu hau lortzeko da. Katalunian gure arazoak herria mentalizatu samarra dago.

- Ghetto baten barruan bizi zaretela esan duzue...

— Horrela da. Gure bizitzak bi alde ditu: alde batetik lan giroan, famili giroan, "normalak" izan behar dugu baina gure sexual bizitzari ekiteko beste bizitza bat egin behar dugu, geure toki berezietara joan, geure hizkera berezi bat erabili. Beti ezkatutaz ibili behar dugu.

## - Nola zaudete, lege aurrean?

— 1.970. urtean egindako legean, "Ley de Peligrosidad y Rehabilitación Social" delakoan, gure homosexualitatea oso zigortuta dago. Drogazale batek guk baino tratua hobea hartzen du, geuri ez baitigute drogalarekin ematen dieten rehabilitazio tratamendurik ematen. Gu gartzelara goaz beti. Homosexual bat izatea ez da gauza erraza gaur egun.

- Zer zarete? Gaixoak? Bizio bideetatik jarriak?

— Gehienak, izatez, "gay" gara. "Gay" hitz ingelesez da eta "homosexual" esan nahi du. Gure "gay" garenez, ezin dugu beste gauzarik izan. Gure artean ba dira, noski, "gay" izaten segitu nahi dutenak, baina ez dute laguntza handirik aurkitzen beren asmoa lortzeko. Beste batzuk, besteak beste, "gay" garela ulertzean izate hau onhartzen dugu. Gauza hauek txikitatik nabaritu ditugu eta horretatik garenez gero, horrela gara.

- Nolako da zuen egoera beste herrialdeetan?

— Ipar Amerikan eta European gure izakera gure herri eta normalagotzat hartzen dute, homosexualak eta heterosexual bidea bezain baliokorra dela ulertzen dute.

- Zenbat "gay" bildu zarete orain arte Bizkaietan?

— Orain dela bi hilabete biltzen hasi ginen eta oraindik gutxi gara, hamabiren bat.

## - Asko zarete?

— Bai, jendeak uste duen baino gehiago. Gure herria eta emakumeen artean ehunetik hogeik homosexual harremanak dituzte. Gure bileretara emakumeak ere etortzen hasiko dira.

- Feminista mugimenduetan emakume "gay" en gaia ere ukitua izan da, irakurri dugunez...

— Horrela da. Lesbierrek emakumeen laguntza samarra lortu dute. Gu, berriz, emakumeak baina diskriminatuagok gaude gizarte "machista" honetan.

- Zer diote gure euskal mediku, abokatu, psikologo eta beste profesionaliek zuen arazoari?

— Orain arte ez dute beren eritzirik agertu eta eritzi hauek ezagutzea oso interesgarriak izango lirateke. Zuen aldizkariaren bidez profesionalari horiei eskari bat egingo genieke: beren ikuspuntuak komunikabideetan agertzea.

- Ba al duzue laguntza opatzen duen antolakunderik?

— Bai, biak Bartzelonan. Bata "Instituto Lambda" da eta, bestea, "Dignitá". Azken hau katolikoena. Erligio aldetik, homosexual bati opatzen zaion bide bakarra hau da, zera: bekatu eta aitortzea.

- Zertan ikusten duzue zuen "normaleztapenera" heltzeko oztopo nagusia?

— Herriak gure arazoari buruz duen irudi okerraren. Batzuk guztiak "travesti" eta honelakoak gure herria uste dute. Ba dira gure artean "eroak" deritzenak, emakume bezala agertu nahi dutenak, baina gehienok besteak bezain normalak agertzen garenak.

- Aaitzerakoan, zuen eskeak laburki agertzen itzazue...

— Lege aurrean dugun tratua gogorra aldatzea hezkuntzan gure bidea heterosexuala bezain normalagotzat agertzea eta, amnistia barruan, guretzat ere askatuak izan daitezela.

## lopinterregek lopinterriari



Hauk ere ez daude baturik

Iragaten ari garen eretia gogotan dugularik, ardoa edateari jarraikitzea baino beste biderik ez dugu aurkitzen.

Problema ikaragarria da modatan jartzeko denari buruz; orain hauteskundeak eta beren "zuri ala beltz"-etako dilemak. Batzuk dioskute deusik ere ez edateko eta beste batzuk jarraiki gakizkiola. Baina zapore orotako kaka baitago, bai eta esan ere, abertzale direla eta, verzatzale (ez dira aza gustatzen zaienak) direla eta, hispaniolistak direla eta, espainiolistak direla eta, eta bizitze orotako eta uzta diferentetako hispaniolak eta espainiolak direla eta (direla eta aski!). Alabaina, kaka diferentetan zapore diferentak baitaude, goian bizitze orotako peeneuea edo eajota (ez da aragoarra), familia onak bezalakoak, aipatzen dugu

eta kastatik galgoari datorkio, edo haritzak ezpala bere, edo nolako lopintaniarrak, halako lopintzakila edo eta... Guk, lopintaniarrak, politikaz, ez eta politicac ere, ez dugu fits-mitsik ere ulertzen, aditzen, entelegatzen; baina edalontziz edalontzi, gogoeta egiten dugu eta esaten ere: zer egiten dute asteen behin baino gehiagotan elkar ikusten duten jauntzar eta jaunskila horiek, beti bat-bi-hiru... (one, two, three..., edo ein-zwein-drei...) puntuekin ari diren esan direlako horiek, klasearen kasta edo kastaren klasea, zeinetan baikaude, bat, batera edo batetara dadin? Ez dakit puntuetan gauza haundirik galtzen duten edo, hainbat direlarik, trikotatzen dutenak bezalakoak teteletuta edo tutulututa geldi daitezkeen. Gauza da, luma edo hegats diferentetatik antzeko

gauzak edo bertsuak sor daitezkeela. Esan nahi duena, elkartzea eta ardo beretik, hots beltzetik, edatea ez dela hain zail. Baina protagonismo nahiak hain dira haundiak, ezen denok baitiogu: nik, gutieneko egunean 40 ardo eta berdinki egiten badugu, moz-kortuko gara.

Gu manaiukor eta erabilerraz gara, egirik den guztian, baina kolore guztiez hornituta kondatzen baitigute, zakila korapilo eginda dugu. Otoi, pentsa ezazue gauza ez dela hain zaila edo zientzia bezain ezkutua; betierekoen eta bizitze orotako betikoen kontra joan behar da eta geure buruari ardoa bota ez diezaio gulara, ezer edanda ongixko baitago.

Lopinterregek Lopinterriari.  
Lopinturtzik Lopinterrege  
Lopintsalba lopintbeza!!!  
Lopintaratik euskarara traslatatua.

## OSKORRI TALDEAREN PROTESTA OHARRA

*Otsailaren 15eko gauean gure taldeko batzuk eta beste lagun batzuk Regio Zineman 18an (Galdakaon) egin behar zen jaialdirako propagandako kartelak jartzen ginelarik, konturatu ginen guk jartzen genituenak beste norbaitek kentzen zituela.*

*Izkina batetan gelditu ginen kartelak kentzen zituztenen zain eta handik minutu batzutara ikusi genuen nola BI-4010-I 4L furgoneta batetik 40 urte inguruko bi gizon irteten ziren, bere lan itsusian jartzen zirela. Hoiengana joan eta esan ziguten bata herriko kontzejala zela eta Polizia Munizipalak bidalita ari zirela kartelak kentzen, geroago ikusi genuen gezurhutsa zela. Hau esanda kotxera sartu eta joan ziren, gero bietatik bat BI-159208 R-8 batera sartzeko eta Bilborako bidetik ihes egin. Berriz ere beste 150 kartel jarri genituen, baina hurrengo egunean denak urraturik eta apurturik agertu ziren.*

*Matrikulakin joan ginen jabeak zeintzuk ziren jakitera, ultra-eskumako batzuk zirelako ustean, baina benetan berri mingots eta penagarri bat jaso genuen bere izenak ezagutzean: Jose Luis Zamakona Barandika, Galdakanon bizi dena eta Txomin Saratxaga Ramirez Bilbon bizi dena, Euzko Alderdi Jeltzailearen (PNV) kide bezala oso ezagunak.*

*Gure gaitzeste sakona adierazten dugu honako edo pareko ekintzengatik, guk eta gure Herriko beste euskal artista batzuk egunero sufritzen ditugunak, eta gure Euskal Herriak behar duen askatasun eta demokrazia giroa nahastu besterik egiten ez dutenak.*

*Oraingoa bezelako ekintzok zeresan politiko argi bat dute: honekin probatzen da ekintzaileen demokrazia-maila eskasa, kritika edo eta alternatiba baliagarriagoak presentatu beharrean, azken 40 urte hauetan gure herriaren ekintza berezi guztiak zapaldu eta desegin dituztenen portaera zikinak erabili baitituzte.*

OSKORRI

## GORKA KNÖRR-en "TXALAPARTA"


Gorka Knörr-ek egindako azken diska handia "Txalaparta" izena du. "Kardantxa" k egina dugu eta lan on bat da, benetan, "Movieplay" estudiantan egin dute Gorkaren "luze" hau. Diska honek duen meritoa handiagoa da "Kardantxa" ren lehen lana dela jakitean. Diskak hamar kanta ditu: "Txalaparta", "Itxasoari begira", "Zenbat euri", "Eskolan", "Katalintxu", "Gebara", "Ez dugu etsiko", "Agurre Zaharra", "Hilgo naiz" eta "Bildu gara".

Alde bakoitzak ba ditu bere kanta onak, eta nahiz eta onak izan ere, zailegiak dira. "Txalaparta" (edo "Tiriki-trauki") kanta eta "Gebara" izugarriko kalitatezkoak dira doinu, hitz eta grabaketa arloetan, eta horrela pentsatu dute diska egileek, kanta biek alde bakoitza irikitzen baitute. "Agurre zaharra", Llach-en kanta famatuak, ez du agerpenik behar, Gorka baitugu kanta honen presentatzaile onenetariko bat. Nahiz eta diska, osorik ikusia, benetan ona eta "erosgarria" izan arren, ba ditu ere bere akats tikiak, gure ustez behintzat. Akats hauen artean zera dugu handiena: kanta batzuren hitzak ("Bildu gara", eta "Ez dugu etsiko", adibidez) oso sutsu eta burruka girokoak ditugu, baina herri arruntak inoiz ez ditu abestuko, doinuak oso zailak izatean. Ba dakigu kalitate "erraz" bat helitzea oso zaila dela musika eta beste arteetan, baina helburu hau bilatu behar da. "Txalaparta" kantak, hots, helburu hau lortu da: kalitatea eta erraztasuna batu dira eta gure euskal giroan jende askok kantatzen du abesti hau. Berdin jasoko al da "Ez



dugu etsiko" kantan? Zaila da, "Katalintxu" arabar herrikoi kanta, beste aldetik, kontraste moduan jarria izan dela pentsa nahi dugu eta arabar folklorentzat omenalditxo bat bezala. Kritika txiki hau egi-tea beharrezkoa ikusi dugu, baina ez diote diskari meriturik kendu nahi. Askok atsegin zaigu eta, proba bezala, diska agertu eta bezain laster erosi genuela esan dezakegu. "Kardantxa" ondo hasi da bere bidea. Gaurtik aurrera gorantza joateko gure txaloe opa diogu.

X.A.



## EUSKAL UNIBERTSITATEAZ

1.—Herri baten kultura bere izatearen adierazpena da, hizkuntzaren, pentsamentuaren, jokamoldearen eta erakunde sozial, juridiko, ekonomiko, politiko eta heziketazkoen bitartez... Euskal Herriak ez du aurkitzen gaur bere kultur erakundeetan Euskal Herri gisa bizitzeko eta aurreratzeko biderik.

Hezierari dagokionez, 1960az geroztik lehen mailako (EGB) eta bigarren mailako (BUP) euskal irakaskuntza baten eskakizuna argi baino argiago den fenomeno nabaria dugu. Horrela sortu dira gure ikastola eta lizeoak. Hauek ez dute arazoa konpontzen, baina agerian jartzen dute herri baten nahia. Unibertsitate mailan, nahi eta eskabide horretan denak bat datoz: Uztaritzeko Udako Euskal Unibertsitatearen moduko proiektu eta ekintzak hor ditugu. Horregatik, azken aldi honetan, eta ozenkiago 1970az geroztik, Euskal Unibertsitate baten beharizanaren aurrean ikasleek, irakasleek eta beste gizarte sailek gero eta kontzientzihartze sakonago bat agertzen dutela ikusten da.

Gaur gaurkoz, euskal Unibertsitate kontzeptua behar adina zehaztua agertzen ez bada ere, eskakizunaren hedadura eta orokortasunak beharizan objektibo bati erantzuten dio, zalantzarik gabe. Bestalde, eskakizun konkretu hau, Euskal Herriaren beste eskakizun multzo baten barnean agertzen zaigu, eskakizun multzo honen denominadore komuna autonomia berriro eskuratzea dugularik.

Beraz, exigentzia bat da geroko Unibertsitate hori tajutzen saiatzea, horrela gure kulturaren

barruti bitala eta kritikoa izan dadin, legez eta bidez. Guk, gizarte horretako kide eta E.U.T.G.-ko Filosofia eta Letretako Fakultateko sekzio batzutan unibertsital mailako irakaskuntzan ari garen pertsonak garenez, gai honi buruz zer uste dugun agertzeri eta gogoeta egitera behartuak gaudela deritzogu.


2.—Zaila da, eta eztabaidagarria, "unibertsitateaz", "kulturaz", "Euskal Unibertsitateaz", eta abarrez zer ulertzen dugun mugatzea. Unibertsitatea, kulturari loturik dagoen errealitatez harrez gero, kultura horren zabalkunde eta lantze tresnatzat, hain zuzen (irakaskuntza osoaren, mass media delakoen, ikerkuntzaren... bidez). Baina zentzu honetan bertan ere, bi errealitateok, Unibertsitatea eta kultura, nagusiago den beste errealitate batetan txertatzen dira: Gizartean.

Uler liteke, baita ere, gizarte batek dituen eraguztietako aurreratze beharizanei erantzuten dien eta, gainera, bere geroko aurreratzearen bitartekoak eta erizpide programatzen dituen erakunde multzo bezala.

Eta Unibertsitatea ulertzeko, puntu batetatik abiatu nahiz beste batetatik, ba dirudi beti muga berdinerira iristen garela, hots, gizartera.

ZENTZU HONETAN, GIZARTE BAKOITZAK; ETA HONEN BARNEAN HERRI OSOAK (ETA EZ, GIZARTE HORRETAKO KLASE EDO TALDE BAKAR BATEK) IZAN BEHAR DU BERE UNIBERTSITATEAREN EGILE, PROGRAMATZAILE, KONTROLATZAILE ETA HARTZAILE. HORRETA-RAKO, GURE KASU KONKRETUAN, PREMISA HAUEI ERANTZUTEKO, EUSKAL UNIBERTSITATE NAZIONALA (BERAZ, AUTONOMI EGOERA BATETATIK IRITSI DAITEKEENA), AUTONOMOA (INSTITUZIO BEZALA), DEMOKRATIKOA, HERRITARRA, DOHAINEKOA ETA PUBLIKOA BEHAR DU IZAN.

# EUSKAL HERRIAN



3.—Dena dela, gaurko unibertsital egoera hobetuz, aipaturiko euskal unibertsitate eredu horretara hurbil gaitzakeen ekintza orori lagunduko diogu.

Zentzu honetan, ba dirudi gaur gure gizartean zenbait unibertsitate formula desberdin izan daitezkeela:

A) Unibertsitate estatala, gaur Euskal Herrian ditugun fakultateak (Zuzena, Ekonomia, Medikuntza, eta abar) osatuz. Era honetako Unibertsitate batek euskal kultura bere egiteko dituen zailtasun praktikoak, *Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos* delakoak ikusi eta aztertu zituen "*Memorias y Bases para la resolución del problema universitario en el País Vasco*" izeneko idazkian (Donostian, 1923). Zailtasun hau honelatsu labur daitezke:

1.— Estatuaren maila baterakoa.

2.— Erregimen Zentralarengandiko dependentzia ekonomiko eta politikoa.

B) Unibertsitate forala, Erregio foralarentzat exigitzen dituen autonomien artean unibertsital mailako kultur autonomia sartzen duenari. Honen esanahia argi dago: foru-gune batengandiko gestio hurbiltasuna eta ekonomiazko dependentzia. Soluziobide honetan ondo zehaztua eta mugatua utzi behar litzateke, "*Proyecto de Régimen especial*" izeneko horietan gaur gertatzen den bezalatsu, kontzertu ekonomiko bat, Diputazioek Probintzia foralen kultur aurrerabidea aitzinera eraman ahal izan dezaten. Diputazioak, bere aldetik, irakaskuntz erakundeei (ikastola eta unibertsitate mailako ikastetxeei) dirulaguntza eman ahal izango lieke, eta baita Euskal Herriko gainerontzeko kultur agerpen guztiei ere.

C) Unibertsitate autonomoa, Bigarren Errepublikan garaian katalandarrek egindako espe-

rientzian oinharritua. Oinharritzko hastapenak izango litzuzke:

1.— Gobernu autonomoari atxekia  
2.— Euskararen eta gaztelaniaren ofizialkide-tasuna

D) Unibertsitate pribatua, bere norabidean Herriaren zerbitzutan definituko litzarekeena. Beraren gestioa erakunde pribatuek (lankoeak, erlijiosoeak, alderdi politikoeak, eta abarrek) kontrolatuko lukete. Ekonomiari dagokionez, erakunde publikoen dirulaguntza izango luke.

4.—Aukera hauen guztien artean, lehenengoan buruz, hots Unibertsitate estatalari buruz, Euskal Herrian ba da gaur mugimendu errebindikatzailerik bat, "*Euskal Unibertsital Barrutia*"-ren aldekoa. Euskal Herri osoa eta Euskal Herria bakarrik, bilduko lukeen barrutiaren aldekoa, hauegia. Guk ere eskakizun hau geure egiten dugu, nahi dugun Euskal Unibertsitateari hurbiltzen gaituela uste baitugu.

Aldi berean, eta edozein aukeraren aurrean horietan euskal herriak eta berak bakar bakarrik behar baitu erabakitzeko ahotsa, nahi dugun helburura eramango gaituen planifikazio bat egiteari beharrezko deritzogu.

Horretarako, derrigorrezko bidezkat haur proposatzen dugu:

1) Irakaslego euskaldun eta egoki bat gertatzearen beharrezko premiazkoa.

2) Gertapen hau erraztu eta ikerkuntza bultzatuko duten tresnak sorteraztea (laborategi, liburutegi, eta abar).

3) Edozein pertsona unibertsitateari sartzea erraz dezaketen eredu ekonomikoak eratzea.

4) Euskal erakunde, elkarte, talde ekonomiko, alderdi politiko, eta abarrak unibertsitate gaiaz behar bezala arduratzea.





haugaitik kaleratuak izan ginen, denpora berean eta gaur ere extruktura faxisten barnean jazotzen ez dena, nahiz eta paroak asko ere luzeagoak izan.

Ez goaz beraren historia luze eta tristagarria kondatzera baina...

— 1973.ean osatu genuen orain harrokeriaz primeziatzat agertu nahi dutenaren aurreprojektua, eta 1975.ean bigarrena.

Horieta defendatzen genuen gestio demokratikoak gure kaleratzea ekarri zigun.

— Gogoratzekoa da ere, irakasle berriek gure kontra ukatu zuten joera, gure lekuak betez, jende berria erakarriz eta gure borroka eta eskakizunak nahasi eta aldrebestuz.

— Eta aipatzen duzuen Araudi horren hauteskudearen "demokraziaz" ba al dakizue? Galde leziozue hainbat gurasori.

B.U.P.eko ikasleen "demokraziazko usadioak" direla eta, ohituak ziren bai, baina orain mehatxatu eta kaleratuak dira "ofizial" eritzikoak ez direnak.

Pedagogian ukanen ahal dugu eredu?

Ikasleek esan lezake izan den aldaketaz, oraingo erreprezio metodoak, zigor kolektiboak, azterketak, etxerako lan ezinezkoak, irakasle-ikasle arteko harremanak..., funts eta prestigioaren metodologia bat azken batetan. Hau al da ikastolen "profesionaltasuna" finkatzeko bidea?

Irakurgarria da ikasleentzat osatutako "Reglamento de faltas" delakoa.

ANAITASUNA, hau al da erazagutu nahi diguzuen ikastola herrikoia, aurrerakoia, euskal unibertsitaterako atea?

Besterik ez, Zehazpen gehiagorik jar nahiez gero, hainbat guraso, ikasle eta irakasle ere izanen duzue hau guztiau frogatzeko lekuko. Eta, zer esanik ez, bi aldeetako informazioa osatzen laguntzeko, prest gaituzue. Nolabait ez goaz ezer eragoztera, bakoitzak nahi duen pedagogia aukeratzeko baitu, baina bai guri dagokiguna argitzera.

Hamabost irakasle ohiak sinatua

ak, Lekeitiokoak, Ondarroakoak, eta Mutrikokoak batik bat, itsas zabalera abiatu ziren, han bertan gure azken gerran Euskal Herriaren alde hil ziren oroimenez omenaldi bat egitera asmoz. Duela 40 urte "Naparra"ko itsas gudariak armada faxistak hondatu baitzuten. Hau dela eta, Comandancia de Marina delakoengandik itsasuntzi bakoitzak 60.000 pzta. zihorra hartuko duela susmoa dago, eta bertara joan zirenak 33 itsasuntzi dira.

"Reconciliación nacional" delako hori zertan datza jakin nahi genuke guk.

Eta besterik ez, zuen herki-deak

Lekeitio-ko herkide batzuk

### ANAITASUNARI LAUROTIK KALERATUTAKO IRAKASLEAK

Harrigarria, benetan, ANAITASUNA, amnistia osoaren deia zuen azalean, lehenengoz azpimarkatzen duzuen alean, (335. zenbakian), LAURO, "egitura apropos" hori plazaratzea. Ahaztu al zaizue azken urte honetan 16 langile kaleratu dituela?

Harrigarria ere, arazo hori dela eta, Anaitasunak eraman duen joera:

— Gure aurkako ihazko "tantaka" biak.

— Bizkaiko irakasleen Asanbladak bidalitako informazioari agerpenik ez ematea.

— Azkenengo artikulo hau. Hitz batetan, ez duzue kaleratzeen arazoa ikutu nahi. Zergatik?

Harrigarriagoa oraindik Lauro eredutzat jartzea. Zertan? Batzorde eta irakasleen er demokratikoetan?

Azken urte eta erdi honetan 10 bidarrez eraman da Lauro hauzitegiatara, zapalketa bat edo bestea dela eta, eta batetan bakkirik galdu dugu, 3 egunetako paroa zela eta, bertan kaleratutako irakasle batekin bat ginelako, eta

ANAITASUNA-ko zuzendaria jauna:

ANAITASUNAREN 336. zenbakian karta bi argitaratzen dira 333.enean idatzi nuen lan bati erantzuten, bata Gaizka Martinez-ek izenpetua eta bestea "Basauriko zazpi abertzalek". Azken karta honetako esaldi batek bultzatzen nau idazki hau idaztera.

Esaldi horrek hau dio: "Eta Gereñok, gainera, ezker abertzalea ukatu egiten du". Esaldi honi erantzunik emango ez banio norbaitek pentsa zezakeen nire ixiltzea baieztapena litzatekeela. Beraz argi eta publikoki adierazi nahi dut euskal abertzalea ez dudala inolaz ere ukatzen. Are gehiago, ni ezker abertzalea sentitzen naizela, eta bai hauteskudeetan eta bai hauteskudeetatik at, ezker abertzaleekin lan egingo dudala.

Agur bero batekin,

Xabier Gereño

Kaixo herkieok:

Honekin batera kosta aldeko bi berri bidaltzen dizuegu, komeni ba zaizuen argitara dezakezue. Lehenengoa bai da barregarria, txiste bat egiteko apropos etorria.

1) Bizkaiko den "Comandancia de Marina" agindu hau argitara du:

Todos los buques pesqueros que deseen ondear la "ikurriña" en sus mástiles serán obligados bajo responsabilidades ulteriores a hacer ondear la bandera nacional que deberá tener por lo menos 1 metro 50 centímetros de largo por 1 metro de ancho. La llamada "Ikurriña" no deberá sobrepasar la siguiente dimensión: 0'75 de largo por 0'30 de ancho.

Hau ikusita, Kostaldeko arrantzaleak, eta agindu hori aldatu arte, adarrak jotzekotan piperpotoari joko diotela diote.

2) Joan den 3an Baxurako zenbait itsasuntziak, Bermeoko-




Gure zozketa:

# INDIA - THAILANDIA

ibilaldia 140 lagunentzat

Lankide Aurrezkia.



Gure lantokietan informa zaite.

CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA

# Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat hurbilago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzakazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarre kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkarturik egon zaitezen.

Útz ezazu zeure uste osorik. Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL  
DE GUIPUZCOA**

